

ttipi-ttapa



URTE AUNITZETAKO BORROKAREN ONDOTIK ESKOLA BERRIA DUTE ITURENEN

Azpiegitura zaharkituak, toki falta, lege aldetik hutsuneak... Urte luzez sumatu dituzte udaletxean izan dute eskolaren gabeziak Iturenen. Ilbeltzaren 11z geroztik, ordea, ikastetxe berria dute; eraikin modernoa eta kontsumo ia nulukoa. / 10

Mugak hesteak haserrea sortu du

Ilbeltzaren 14tik Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko mugako zortzi pasabide itxita daude eta horrek hainbat protesta eragin ditu eskualdean.

SINADURAK



ZOKKETA / 21



'Sugarren mende'
liburuan parte hartu
du Helena Xurio
zugarramurdiarrak / 8



Jorge Oteiza
ilbeltzaz geroztik
Ornoz-Mugairiko
alkatea da / 35

Arizkunen eta Iruritan
izan ezik, gainerako
herrietan alkateak
izendatu dituzte / 32

Jean Marc Dupont
Senpereko
arraunlaria
Atlantikoan dabil / 41

IKASTOLA

BAZTAN · LESAKA · BERA

herritik
sortua, herriarentzat

ZATOZTE ZUEN IKASTOLA
EZAGUTZERA!

hezkuntza eredu eraldatzailea euskararen ardaztutako euskal curriculumak ikasmaterialgintza propioa
propioa aitzindaritza pedagogikoa eleaniztasuna kooperatibitatea auzolana eta elkartasuna



BAZTAN IKASTOLA

Aurrematrikulazio data zehatzak jakitean gure berri izanen duzue.

Zalantzaren bat argitzeko deitu lasai 948 452 448 telefonora edo idatzi baztan@baztangoikastola.com helbide elektronikora.



TANTIRUMAIRU IKASTOLA

Ikastola barrenetik ezagutu eta hitzordua zehazteko deitu 948 637 308 / 636 865 399 telefonoetara edo idatzi lasai zuzendaria@tantirumairu.eus helbide elektronikora

LABIAGA IKASTOLA

ATE IREKIAK Otsailak 6, larunbata Goizeko 10etatik 13etara Eztegarako Ikastolan

BAKARKAKO BILERAK ADOSTEKO 948 630 172 / 608 677 446 bera@ikastola.eus





NIRE TXANDA

MAITE BIDARTE SOTA

Kontsumoa vs. kontsumismoa

Lan kontuengatik tokatu zait azken hilabeteetan aldaketa klimatikoaren gaian murgiltzea eta balio izan dit bizi dugun krisiaren aitzinean kontzientzia gehiago hartzeko. Hasteko, hau ez dela aldaketa klimatikoa, baizik eta krisi ekosozial bat, edo krisi sozioekologiko bat, nahi bezala deitu. Thriller onenetan gertatzen den bezala, detaile ttikiak ere badu lotura, baita bizi dugun krisian ere: poloak urtzea, Filomena, animalia espezieak desagertzea eta soldata arrakalak areagotzea...

Gure gizarte ereduak eragin du krisi hau: ekoizpen eta kontsumo-sistema global aseegin bat, hazkunde mugagabea helburu bakarrarekin: etekina. Kontsumoa eta kontsumismoa. Ia, baina ez dira

igualak. Kontsumismo guttiago eta kontsumo arduratsu gehiago. Guttiago erosi baina bertan eta bertakoa. Auto bidaiak konpartitu, bizikleta hartu, joan gaitezen oinez. Plastikoa saihestu, eta berrerabili. Bai, badakit Dabid eta Goliatena dela hau. Goikoak mugituko ote diren ez dakit, baina premia handia da.

«KONTSUMISMO GUTTIAGO, ETA KONTSUMO ARDURATSU GEHIAGO»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Karibetik baserria konkistatzen

Belar-metak egitera eta azpiak ateratzen Euskal Herriko baserri batean sartu dituzte euskaldunak (tarteka *erdarakazo* ederrak aditu arren) eta Karibeko irla xarmangarria eraman dituzte gaztelaradunak (inoizbehinka euskaraz sumatzen baditugu ere). ETBko aurrekontuen (eta audientzien, bale...) erakusgarri. Egun eta ordu berean paratu ez dituztenean!

NABARMENTZEKOAK



MILAGROS
ALDABE
100 URTE



UNAI
IANTZI
KIROLARIA

Berako zahar etxeko 35 egoiliarrek ilbeltzaren 18an hartu zuten Covid-19aren kontrako txertoaren lehenbiziko dosia, tartean, abuztuaren 100 urte beteko dituen Milagros Aldabe beratarrak.

Unai Iantzi aniztarrak lehen aldiz Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketa irabazi zuen ilbeltzaren 16an Abadiñon (Bizkaia). Denbora bikaina egin zuen gainera, bere marka hobetuz (6:02).

ATZERA BEGIRA



2011-01-20 · TTIPI-TTAPA · 534 zk.

Errekako bandera Ekuadorko Andean

Duela hamar urte Gogor Atxalandabaso, Joxerra Aldabe, Roberto Ordax, David Mindegia, Sanba San Miguel eta Juanje Lizarragak Ekuadorko mendirik garaienetara eraman zuten Doneztebeko Erreka Kirol Elkartearen bandera, zehazki Chimborazo (6.310 metro) eta Cotopaxi (5.897 metro) tontorretara. TTIPI-TTAPA orduko espedizio hura izan zuen hizpide duela hamar urte argitaratutako aldizkarian. Bi tontor horiek izan ziren mendizaleen helburu nagusiak, baina Laguna Cuicocha (3.600 metro), Fuya Fuya (4.200 metro) eta Guagua Pichincha (4.800 metro) ere igo zituzten, baita 5.116 metro dituen Illiniza Norte ere. Aitortu zutenenez, «helburu guztiak beteta itzuli ziren etxera».



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senperoko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 40€
eta Malerreka 30€
Leitza 48€
Hego Euskal Herria 94€
Ipar Euskal Herria, Europa 140€
Amerika eta Australia





KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Nolako zahartzarora nahi dugu?

Berriki galdera honi buruz pentsatzen paratu ninduten: *Zuretake zein da zahartu izanaren seinalea?* Erantzuna ez zen erraza izan: bista, gorputza, adina, ximurrak...? Azkenean urteetan hogeita hamar urtetik goiti gazteak ez garelako onartu behar izatea aldarrikatu dut, eta orain geure burua zahar noiz izendatu pentsatzen nabil. Gaztetasuna uztea bezainbertze kostatuko zaigu? Geure burua zahartzarora imajinatzen dugu?

Hasteko, hiztegia egon bai, baina batere ezagutzen ez dugun hitz bat dago: adinkeria. Adinean oinarrituz ematen den diskriminazioari erraten zaio, zaharren kontra izaten diren diskriminazio ekintzak deskribatzeko: infantilizatzea, ikusezin bihurtzea, beren buruaren jabe ez direla pentsatzea, erabakitze ahalmena ukatzea, tratu txarrak, estereotipoak...

Bazterrean uzten dugun adin tartean ari gara. Gainerako adin tartean (haur, gazte, heldu) produkzioarako etorkizuna edo oraina dira. Zaharrek produzitzen ez dutenez, kapitalismoak hala agindua, gure agendetatik kanpo, gure egunerokoetatik urrun, gure aldarrikapenetatik bazter uzten ditugu.

Eta akitzeko, zahar-etxean bizitzaren aukera azken aukera gisa ikusten dugu. Ez du glamourrik. «Zaharrekin bizitze»

«ZAHAR ETXEAREN KONTZEPTUA ALDATZEA ORAITIK TOKATZEN ZAIGU»

imajinatzen dugu geure burua, gu betirako adin berean geldituko bagina bezala. Orain akaso ezagutzen ari gara pixka bat, Elizondoko zahar-etxeak langileek beren aldarrikapenak mutur aitzinean paratu

dizkigutelarik. Langileak ari dira beren lan baldintzak duinak izatearen alde, beraiek ere zaintza duina ziurtatu ahal izateko. Baliorik ematen ez zaionari balioa ematen. Aldarrikapen horiekin bat egiteko inork ez du zalantzarik izanen, enpresa bera ez bada behinik behin. Langileek, egoiliarrek, hauen senideek... Herriaren parte direla ohartzetik hasi, etorkizuneko gure etxea izatea onartzeraino.

Eta hemen nire galderak: nolako zahartzarora nahi dugu? Non pasatuko dugu? Zahar-etxean bai edo ez? Hala bada, nolakoa nahi dugu? Pribatua? Publikoa? ...

Zahar-etxearen kontzeptua aldatzea oraitik tokatzen zaigu, berritza. Oraitik pentsatu beharko genuke nolakoa izatea nahiko genukeen, nolako zahar-etxean ikusten dugun geure burua, nolakoa zahartzarora. Oraitik hasi, geroko duintasuna bermatzeko.



IZASKUN REKARTE BENGOTXEA

Aldarriak egiteko tenorea

Azken urteotan ilbeltza izan da euskal preso politiko eta iheslarien aldeko aldarriak egiteko tenorea. Urte hasierarekin batera, milaka ahots, lagun eta oihu batzen dira Bidasoa ibaiaren bi aldeetan, bi estatu zapaltzaileen artean bizi den herri bakarra presoen aldeko eskubideak eskatuz. Batzuetan karrikak jendez beteta egin dugu aldarria, bertzeetan plazak itxaropenez argituz. Euskal Herriko gehiengo sozialak, politikoak eta sindikalak bat egiten duen aldarriarekin bat egiteko tenorea da ilbeltza.

Aldarri hauen testuinguruak ez dira sekula berdinak izaten, eta egun, Covid-19aren eraginez, oraindik eta bereziagoa da. Osasun larrialdiak eta honek ekarri dituen prebentzio neurriek gizarte osoaren eskubideak urratzeko aukera eskaini die agintariei, eta, zer erranik ez kartzelan dauden lagunaren eskubideak. Dudarik gabe, egoera honetan presoen eta iheslarien zein beraien senideen egoera larritu egin da. Kartzelari kartzela barruko bertze zigor bat ezarri zaio, dispertsio politika eta urrunketa inposatuaz aparte, euskal presoak senideekiko zein lagunekiko harremanik gabe, inoiz baino isolatuago gelditu baitira. Zigor gehigarria ezarri diete salbuespeneko politika honekin. Bizitza guztirako kartzela zigorak indarrean jarraitzen du eta Etxerategen argitaratutako datuen arabera, egun,

«EUSKAL PRESO POLITIKO ETA IHESLARIEN ETXERATZEA GIZALEGEZKOA DA»

oraindik ere, euskal presoen %80 lehen graduko egoeran dago eta horien artean, batzuek hogeitaz baina gehiago daramatzate (Etxerat, 2021). Urte hasieran, Zaballako espetxean bi lagunek bizitza galdu zutelarekin jakinarazi

ziguten. 2020an sei presok bizitza galdu zuten Arabako espetxean (Salhaketa, 2021). Ikaragarria.

Iñaki Lagabaster Euskal Herriko Unibertsitateko katedradunak eta Amaia Goirigolzarri abokatuak hirurehun legelariaren izenean aldarria argia egin zuten: «egungo espetxe politikaren larritasun handiena legez kanpokoa izatea eta oinarritzko eskubideak ez errespetatzea da» (Sare, 2020).

Eta nola diren gauzak. Gibelerat pixka bat begiratzen badugu, 1988ko urtarrilaren 12an sinatu zen Ajuria Eneko Itunak zioena datorrit burura, zeinean borroka armatua bukatzen zenean euskal preso politiko guztiak kalera ateratzea arazoaren konponbidea izanen zela onartu zen. Itun honen sinatzaileen artean zeuden PNV, PSE, AP, CDS, EA eta EE. 2011n adostu zen armagabetzea, baina ez da ez barkamen eskaerarik, ez presoen hurbilketarik, ez deus ere ailegatu. Itunaren funtsa bi aldeek zerbait ematea da, baina, oraingoz, soilik batek egin du esfortzua.

Lehen argi bagenuen, orain inoiz baino argiago dugu. Gure preso eta iheslariak bahituta dituzten bitartean, gure etorkizuna bahitu dute. Euskal preso politiko eta iheslarien etxeratzea arrazoizkoa eta, zinez, gizalegezkoa da. Adituek ere horrela erran dute. Herritarren gehiengoak horrela aldarrikatu du. Sentipen, pentsamendu eta ideologia guztien gainetik etxean behar eta nahi ditugu. Haien ametsak, gureak ere badirelako.

11 GALDERA LABUR

ITSASO URRUTIA ELIZONDOKO ILE-APAINZAILERA

«Bezeroaren eta apaintzailearen arteko adostasuna behar da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Martxoan 23 urte beteko dituen neska gazte elizondarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendia, lagunekin denbora pasatzea eta bidaiatzea. Orain arte, azken honetarako denbora guti izan dut lana eta ikasketak direla medio.

Zer ikasi duzu?

Ile-apainketako erdi mailako ziklo bat egin nuen lehenik Burlatan eta ondotik Elizondoko ile-apaindegi batean lanean hasi nintzen. Gero, goi mailako zikloa lanarekin uzartu nuen eta orain CAP-a egiteko intentzioa dut.

Zergatik aukeratu zenuen ile-apaintzaile izatea?

Nerabezarotik argi nuen bide hau segitu nahi nuela, atentzioa

ematen zidan eta arras kontent nago egindako hautaketarekin.

Nafarroako Gobernuak Erasmus beka lortu duzu...

Bai, honen bidez bertze herrialde batera bidaiatu eta bertan nire formakuntza segitzeko aukera izanen dut.

Zergatik aukeratu duzu joatea?

Hasiera batean martxoan Italiara joatekoa nintzen, baina, Covid-19a tarteko, bidaiaren behera gelditu zen. Orain, Portugalera joan bertze aukerarik ez dut izan.

Aukera ona dela uste duzu?

Doike! Apainketa mundu bat da, eta herrialde batetik bertzera joerak pila bat aldatzen dira. Ziur aunitz ikasiko dudala eta teknika berriak ekarriko ditudala Elizondora. Hori espero dut.



Zer da zure lanbidetik gehien gustatzen zaizuna?

Ile-apainketako teknika berriak probatzea: kolore ausartak, ile mozketa ezberdinak...

Eta guttien?

Zure irudimena eta sormena lantzen uzten ez dituzten lanak dira astunenak iruditzen zaizkidanak.

Ile-apaintzaileari nahi duena egiten utzi behar zaio?

Ez beti. Ile-apaintzaileak bezeroak zer nahi duen erreferentzia gisa hartuta, hobekien

geldituko zaion proposamena egin behar dio. Bezeroaren eta profesionalaren arteko adostasuna bilatu behar da.

Nori eginen zenioke ile-apainketa?

Karrikan oinez nabilenean bista jendearen burura joaten zait eta «honi ilea moztuko nioke eta bertze hari kolore pixka batek itxura edertuko lioke» pentsatzen aritzen naiz batzutan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Auzo-lotsa

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Non eta zergatik sentitu ote dut nik inoiz inoren lotsa, bizitzan zehar? Leku askotan eta arrazoi ugariengatik, da erantzuna.

Gizarte honetan, jakina da, ezberdinak diren pertsonak edota gehienekin bat egiten ez dutenak, nola edo hala, baztertuak eta zokoratuak izaten direla. Esate baterako, emakumeekin gertatzen da, gizonak ez izateagatik. Beltzekin ere bai, zuriak ez direlako. Txiro eta behartsuekin beste horrenbeste pasatzen da, diru gutxi dutelako. Etorquinei, errefuxiatuei, lesbia-nei, gayei, transexualei, bisexuali, intersexualei, prostitutei, galtzaileei, espetxeratuak eta abarri ere berdintsu gertatzen zaie; alboratuak eta zapalduak izaten dira. Zerrenda arrunt luzea izan liteke, ia-ia amaigabea. Gizartea ez da batere solidarioa mota horretako pertsonekin, are gehiago, esan liteke, gehienetan, oso ankerra dela, eta, horrek sufrimendu handia dakar pertsona askorentzat.

Aipatutako pertsona ezberdin eta difereente horien artean, aniztasun funtzionala edota arauz kanpoko funtzionaltasuna dutenak dira (elbarriak, urritasunen bat dutenak, ezindua, gutxituak, ezgaitasun fisikoak edo psikikoak dituztenak: itsuak, gorrak, mainguiak, aulki gurpildunak eta abar), izen horiek guztiak eta gehiago ere erabiltzen edo inoiz, behintzat, erabili izan dira, pertsona batzuk izendatzeko; denak, gizabanako duinak eta giza esku-bide guztien jabeak direnak aipatzeko, alegia. Ez dira izen gutxi, alajainetan!

Bizitzan, batzuetan, pertsonok inoren lotsa pasatzen dugu. Baina, jakina, egoera guztiak ez dira berdin-berdinak, edota, beste modu batez esateko, pertsona guztiak ez dute erantzukizun berbera gizartearen eta norbanakoen aurrean.

Oraingo honetan, batez ere azpimarratu nahi ditut, 2003tik 2007ra, Iruñeko Udalean, zinegotzi izan nintzen garaian, alegia, lau urte haietan, nire egoera fisikoarengatik, hau da, gorpil-aulki batean

ibili eta bizitzeagatik, gertatu zitzaizkidan hainbat eta hainbat bizipen ezohiko. Baina, aurreko hamarkadetan ere gertatu zitzaizkidan beste pasadizo bitxi eta deseroso batzuk, besteak beste, pertsona publiko batzuekin, esate baterako, Javier Iturberekin, Alfredo Jaimerekin, Juan Ramon Gancedo Iruñeko udal arkitektoarekin eta abar, eta abar.

1. PIXA ERREKA BERNETAN.

Gorago esan dudan bezalaxe, bizitzan makina bat pasadizo bizi izandakoa naiz, nire izaera fisikoarengatik. Honako hauxe izanen da, seguru asko, gogoratzen dudana lehenetariko bat. Hamar bat urte nituenean, ordurako gaizki samar ibiltzen nintzen fisikoki, gaitz hereditario bat tarteko zela. Giharrak eta orpazurdak ez zitzaizkidan behar bezala garatzen, eta, horregatik, oin puntetan ibili ohi nintzen, modu xeble samar batean. Hura dela eta, Lekunberriko mutiko batzuek *oin-punta* esaten zidaten, izengoiti moduan, ni iraindu nahian-edo. Ibilera ezohiko hark, erraztasun handiarekin lurrera erortzea ere ekartzen zidan, eta, halaxe joan nintzen handitzen eta hazten iseka eta laido batzuen artean; Etxarrin, gure herrian, ez, han betidanik halaxe ezagutu baininduten.


Igande jakin batean, Lekunberriko parrokiatik atera bezain azkar, hara non, herri hartako mutiko txiki bat, ni baino dezente kakanarruagoa zena, niregana hurbildu, eta, batere zalantzarik egin gabe, pitilina atera eta pixa egin zidan goitik behera zangoetan, konplexurik gabe.

Ni, adin hartan, oraindik galtza motxetan ibiltzen nintzen, eta, eskerrak!, bestela, pentsa dezagun zer gertatuko zatekeen, bururatu izan balitzaio gauza bera egitea, baina galtzen gaiean!; asko ere enbarazu handiagoa niretzat!

Gaur egun, harreman ona daukat garai hartako mutiko txiki eta bihurri harekin; ez dakit berak gogoratuko ote duen pasadizoa, nik ez diot inoiz aipatu, baina argi dagoena da, ekintza hura egin zuenean irudituko zitzaiola zerbait on eta handi egiten ari zela, gainera, ni ez bainintzen

BOTA BERTSOA

**MALEN
ALTZUART**
ERRATZUKO
BERTSOLARIA



Originaltasun, originalkeria, originalago, originalegi...

Doinua: Seaskari

*Originala izan beharra
zaigu sarritan bizio
maite duguna egite hori
bilakatuz arerio
egiten zu(e)nak egiteari
horregatik utzi dio
berri berria berritzeari
ustel usaina dario*

*Nork ez ote du sormen arloan
izaten aski presio
'izan, liburu ona da baina
berri gauza bera dio'.
Sortzailea bai, hunkitzen zuen
horrek ez al du balio?
Sormenak ez du kartzelik behar
izan behar du patio!*

*Nahiz sormenaren mundua dugun
edukietan zabala
berria sortze horrena zailtzen
da denbora pasa ahala
Baina hau ezin zaigu bihurtu
ez sortzeko arrakala
presio hori ere ez da ta
gargero originala.*

Lekunberrikoa, baizik eta ondoko herri batekoa, eta, horrela, beharbada, egiten zuen konbentzimendu eta amorru handiagorekin. Bera gustura geldituko zen, segur aski, baina, ni, zeharo harrituta, ordea, eta inoren lotsa sentituko nukeen, noski, adin handiagoa izan banu.

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

***'KASU, BERO(A) DAGOELA!'** ala **'KASU, BERO(A) DAGO (ETA)!**

-(e)la menderagailuaren erabilera oker batzuk bildu ditugu aldi honetan Euskararen Txokoa.

-***Hain da handia, ez dela atetik sartzen** > **Hain da handia, (non) ez baita atetik sartzen.**

-***Badu lagun bat igeltseroa dela** > **Badu lagun bat igeltseroa dena.**

-***Ez ibili irristailuekin, eroriko zarela!** > **Ez ibili irristailuekin, eror zaitzake eta / erori egingen zara eta!**

-***Ezagutzen ditut neska batzuk bizi direla baserri batean...** > **Ezagutzen ditut neska batzuk baserri batean bizi direnak / Baserri batean bizi diren neska batzuk ezagutzen ditut / Ezagutzen ditudan neska batzuk baserri batean bizi dira.**

Hizki-zopa

Lot ezazu bakoitza bere bikotearekin!

Ahalketu

Landa

Aiher izan

Izurri

Arrastelu

Zarata

Helderia

Lotsatu

Asots

Eskuare

Alor

Desiratu

Bitxikeriak

Asmatu al zenuen aurtengo lehenbiziko aldizkariko erran zaharra? **Urte berri, asmo berri.** Horixe zen erantzuna.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Zein da zuzena?

***2ean** ala **2an?**

***11ean** ala **11n?**

- Zenbakia **bokalez** bukatzen bada, kasu-marka **zuzenean** erantsi behar zaio:



- ***Otsailaren 2ean Begoñaren urtebetetze eguna da** > **Otsailaren 2an (bian) Begoñaren urtebetetze eguna da.**

- Zenbakia **kontsonantez** bukatzen bada loturazko 'e' bat behar du...:

- ***Ilbeltzaren 1an hasi eta otsailaren 5an bukatu zen ikastaroa** > **Ilbeltzaren 1ean hasi eta otsailaren 5ean bukatu zen ikastaroa.**

- ***90ko hamarkadan bertsolaritzak salto handia egin zuen** > **90eko hamarkadan bertsolaritzak salto handia egin zuen.**

OHARRA!

Erne hamaika zenbakiarekin! **Hamaika** zenbakiaren deklinabidean, hitzak -a berezkoa duenez, ez da gokia bertze a-rik. Bertze horrenbertze gertatzen da 31, 51, 71, 91... zenbaki-tan.

- ***Abuztuaren 11an etorriko da** > **Abuztuaren 11n (hamaikan) etorriko da.**

«Mehatxupean isildu da inkisizioak eragin zuen neurrigabeko sarraskia»

HELENA XURIO ARBURUA 'SUGARREN MENDE' LIBURUKO GALERIA ATALAREN EGILEA

Inkisizioaren ondotik etorri zen 400 urteko isiltasuna urratuz, *Sugarren mende* liburua plazaratu du Asisko Urmenetak. Gaiaren lanketan bidelagun izan du Helena Xurio zugarramurdiarra

N. BAZTERRIKA ZUGARRAMURDI

Ipuin eta kondairak bazterrean utzi eta egia ezagutzeko beharra sentituta, herriko historia aztertzen hasi zen Helena Xurio (Zugarramurdi, 1970). Asisko Urmeneta komikilariarekin batera, Euskal Herriaz haraindi, inkisizioaz idatzi dutena irakurri eta hariaklotu ondotik, emaitza komiki batean bildu du. Zugarramurdi eta Erronkaritik Amezkoaraino *Sugarren mende* bizitakoa ageriko egiteko, herriz herri lana aurkezten ari dira orain.

Noiz ikusi zenuen memoria historikoa egiteko beharra eta zer dela eta ekin zenioten lanari?

Haurrak ginela, beti aditu izan dugu herrian sorginak izanak zirela, Zugarramurdi sorginen herria zela... Ama, amaxi eta adinekoei galdetuta ere, inork ez zekien deus. Nire kusina, Koro Irazoki, hasi zen ikertzen. Berak *Zugarramurdiko sorginak* izeneko liburuxka bat atera zuen eta herrian zigortutakoak bildu zituen. Zerrenda hori eskuetan izan nuelarik hasi nintzen kontzientziazten. Jende horien abizenak gaur egungo Zugarramurdiko etxeen izenak direla ikusi nuen eta orduan zigortutakoak gauregungo jendearekin ordeztu nituen. Herriko 32 lagun ehizatu, herri arrotz batera eraman, ondasun guztiak bahitu, torturatu, birrindu, batzuk han berean hil eta hondarreko momenturaino akusazioak ukatu zituztenak erre zituztela jakinik, nola da posible horri buruzko

tantarik ere ez ailegatzea? Galdera hori izan nuen abiapuntu. **Aunitz dira sorginei buruzko lanak. Sarritan, ordea, sorginak kondairen erdigune dira. Horren gibeletik bada zer kontatua...**

Bai, azken urteetan historia honek ipuin edo mito itxura hartu du eta hori ikustea ere egia kontatzeko bulkada izan da. Arbasoek sufrututakoarekin ipuin bat sortzen ari gara Eus-

kal Herrian, sorgin izatea ona dela erran eta erre zituzten sorginen seme-alabak garela aldarrikatzen ari gara. Egia horren gogorra izaki, asmatzen hasi gara... Horren aitzinean, begiak irekitzeko eta gure historia kontatzeko beharra sentitu dut.

Sugarren mende komikia izan da emaitza. Zer dela eta izenburu hori?



Helena Xuriok komikiaren galeria egin du.

Batetik, Zugarramurdi keinu bat egiten zaio, sugarra-Zugarra(murdi). Herrian gertatutakotik abiatu ginen baina ezin da hori bakarrik kontatu, testuinguru historikorik gabe. Mende osoa kontatu behar zela ohartu ginen, Nafarroako konkistaren ondotik hasita. Hor agertu zen lehenbiziko aldiz Euskal Herriko historian sekta satanikoa kontzeptua. Sekta sataniko horiek Katherina I.aren eta Johan III.a Albretekoaren aldekoak ziren lekuetan-Erronkarin, Zaraitzun, Aezkoan, Luzaiden...-zeuden. Hortik hasietamende batez (1513-1616) garbiketa izugarria egin zuten, sekulako sugarrak izan ziren Erronkaritik Amezkoaraino, Lapurdin barrena (hortik mende, menpe). Muga guztia garbitu nahi zuten, bi inperioek beraien mugak zehazteko.

Zugarramurdiko sorgin ehiza izan duzue abiapuntu, eta hortik abiatuz Euskal Herriko sarraskia aztertu duzue.

Bai. Hasiera Zugarramurdi kokatzen da, 1580. urtean. Herriarrek sagarrondo bat landatu zuten, Zugarramurdi Urda-zubiko monasteriotik independizatuko zela eta herriko etxea sortuko zela deliberatu zuten. Batzar horretan zegoen jendea 30 urte berantago epaitua eta kondenatua izan zen. Hortik abiatuta, 1616ra arteko prozesua bildu dugu. Zugarramurdiko kasu moderno eta eza-gunena da baina ez bakarra eta hildako gehiago eragin zituzten prozesuak ere badira. Erronkari eta inguru horietan jende aunitz erre zuten. Lapurdiko ez dakigu deus, Pierre de Lancre inkisidoreak paper guziak erre zituelako. Ez dugusumutzen ahal sarraski honen tamaina. **Inkisizioaren izate politikoa eta polizia guti ikertu dela diozue. Zer da ikertzeko dagoena?**

Euskal Herriatik kanpo ikertu da eta hori da guk egin nahi izan duguna. Espainiako koloniak izan diren eta independentzia lortu zuten herrialdeetara jo dugu eta han inork ez duela sorginak izan zirenik aldarrikatu ikusi dugu. Han euren na-

rratiba propioa dute eta gu oraindik herrialde okupatu batean gaudenez, ikuspegi hori ez dugu landu. Niretzat aurkikuntza handia izan da eta lan honek egiten duen ekarpen nagusia hori dela erranen nuke. **Herritarrak gerraren biktima izan ziren...**

Ehizakiak izan zirela erraten dugu. 'Sorgin' hitza uztea zail egiten zaio jendeari... baina ez ziren sorginak, gure arbasoak 'ez gara sorginak' erranez hil ziren eta guk ez genuke hori aldarrikatu behar.

Zer-nolako jendea izan zen epaitua, zigortua eta torturatua?

Denetarikoa. Ehizaki horiek orduko lider sozialak, klase gutzietakoak, ziren. Armadoreak, nobleak, apezak, abokatuak, ikazkinak, errotariak, eskaleak... bai gizon, bai emakume, baita haur pila bat ere. Salazar Bidasoa eskualderat -Baztan, Mallerreka, Bortziriak eta Xaretara- etorritzen ziren 1.400 haurren salaketak jaso zituen. Herri oso bat izan zen zigortua.

Lapurdi eta Nafarroako jazarpena, momentu batetik aitzinera, koordinatua izan zela diozue.

Momentu batean, etsai historikoak ziren Espainiak eta Frantziak elkartzen jakin zuten gure herria garbitzeko. 1609ko dokumentu batean Leon Aranibarrek, Urdazubiko monasterioko buruak, eta Espainiako erregearen ordezkariaren espioi nagusiak deitutako bilera bat egin zuten Ainhoan. Bertan elkartu ziren De Lancreren burua, Urtubiko jauna, Senpereko jauna [historikoki etsai han-

«INKISIZIOAK MUGIMENDU INDEPENDISTAK GELDITU DITU»

«DENETARIKO JENDEA ZIGORTU ZUTEN SORGINAK ZIRELA ERRANEZ»

Komikia eta galeria

Elurre Iriarte arizkundarrarekin batera, *Sugarren mende* liburuan murgilduta ibili da Helena Xurio zugarramurdiarra azken bi urteetan. Informazioa bilketa eta komikia Asisko Urmenetak egin du eta Iriartek eta Xuriok komikiaren bukaera erantsi duten 'Galeria' atala landu dute. Bertan, komikian agertzen diren pertsonaiak banan-banan aurkeztu dituzte, «zigortuak ez ezik, zigortzaileak ere bilduz». Orain arte Euskal Herrian eta inguruan idatziak diren «sorginen aferetan argia herritarrengana emana» izan da, «zer egiten zuten eta zer ez bildu izan dute». Hauek, ordea, «argia inkisiziora eman» dute: «inkisidoreak nor diren eta zergatik agertzen diren aztertu dugu, inkisizioak eragindako sarraskiaren ikuspegi historikoa bilduz». Liburua www.gureberriak.com atarian edo Erratzuko Zubi-puntan eskura daiteke.



diak izanak] eta Logroñotik etorritako Juan Valle Alvarado inkisidorea gure herria harriatzeko. Behin baino gehiagotan elkartu ziren, konkistatutako Nafarroako eremu hori hartu eta euren muga definitzeko.

Nola gelditu zen herria inkisizioren ondotik?

Ba pentsa! Gehien sufritu duten lekuetan ikusten da horren aldarr handiena. Zugarramurdin sartu eta sorgina ikusten da, Sorginen Lezea, Sorginen Museoa, panpinak, pegatinak, herriko etxeko taldea Akelarre da, elkartea ere bai... Akelarre hitza inkisizioak asmatu zuen Logroñon, eta gu hori aldarrikatzen ari gara. Zaila izanen da Zugarramurdi-sorgin lotura hori haustea, baina hasi beharko dugu kontzientzia hartzen. Badakigu ez zirela sorginak eta ez genituzke hala izendatu behar... Ezin dugu atzendu inkisizioak herrian zatiketa eta mesfidantza eragin zituela. 1610ean sorginak zirela onartu zutenek torturapean egin zuten, gainera, bertze herritar batzuk salatu zituzten... Horrek herrian mesfidantza eta beldurra eragin zituen eta herriko baloreak suntsitu egin ziren.

Isiltasunak ezkutatu du egia osoa...

Bai, inkisizioak isiltasunaren ediktua eman zuen, zigorraren mehatxupean eta, ondorioz, inkisizioaren jazarpenaz mintzatzea debekatua gelditu zen. 1616an Zugarramurdiko talde bat -aunitz Logroñoko presondegitik pasatu zirenak- Urdazubiko monasteriorat joan zen justizia eta erreparazio eske, baina Aranibarrek ediktu hori oroitarazi zien. Horrela konprenitu behar dugu 400 urteko isiltasun hori, nire ustez sarraskiaren neurriaren adierazle dena. Isiltasun horrek menderakuntza eta kolonialismoaren izugarrikeria estali du. Maiz pentsatu izan dut: 'noiz ezabatuko zen hau guztia gure arbasoen memoriatik?'. Pentsa, Pedro Agerre *Axular*rek garai horretan atera zuen liburua, 1643an. Berak hori guztia bizi izan zuen, hemengo zen. Nola ez du deus aipatu? Zigorraren mehatxua hor zen eta...

Isiltasun hori hautsiz, azaroan herriko 32 biktimak omendu eta liburua aurkezteko hitzordua antolatuta zenuen.

Etxeberriko plazan bildu, arbasoei omenaldia egin eta herrian liburua aurkeztu nahi izan genuen. Alkateak, koronabirusaren aitzakiapean,

azken momentuan, eta udal taldekideei botoa emateko aukerarik eman gabe, liburu aurkezpena debekatu zigun. Debeku guztien gainetik gure herritarrak omentzea erabaki genuen. Etxeberriko plazan elkartu eta sagarrondoa landatu genuen, 1580ko batzarrean egin zuten bezala. Monasterioko buruak, Leon Aranibarrek, debekatu zuen herritarrek arbola landatzea eta kontra egiteko keinua izan zen, herri independentea zirela adierazteko, alegia. Orduko batzar horretan aukeratu zuten lehenbiziko alkatearen -Mikael Goibururen- ondorengoek, Goiburuko Maitanek eta Matinek, landatu zuten. Prozesuan zigortutako herritarren omenaldi gisa banaka izenak erran eta herritar bakoitzaren historia irakurri genuen arbasoen memoria garbituz.

Orain herriz herri lana aurkezten ari zarete. Eskualdean non dituzue hurrengo aurkezpenak?

Otsailaren 5ean Elizondon, 6an Arantzán, apirilaren 16an Laskan eta 30ean Ezkurran izanen gara. Lana aurkeztearekin batera, herrietan laguntza eskatu nahi dugu, ahalik eta datu gehien bilduz memoria txosten bat osatzeko.



Iturengo Pulunpa eskolako 5. mailako ikasleak kontent eskola berrian.

Iturengo eskola berriak atekak ireki ditu

Azpiegitura zaharkituak, toki falta, lege aldetik hutsuneak... Urte luzez sumatu dituzte udaletxean izan duten eskolaren gabeziak Iturenen. Ilbeltzaren 11n, ordea, aspaldiko urtetako eskaria egia bihurtu zuten eta Pulunpa ikastetxeko 70 ikasleek eta 11 irakasleek eraikin berria estreinatu zuten

G. PIKABEA | ITUREN

Bidea luzea eta gogorra izan da, eta tarte horretan «itxaropena, inpotentzia, beldurra, zalantza, amorrua...», denetarik sentitu dute. Ez dira urte errazakizan, baina lortu dute «ametsa» egia bihurtzea eta eskola berria dute Iturenen. Pulunpa ikastetxeko 70 ikasleek eta 11 irakasleek ilbeltzaren 11n estreinatu zuten eraikina, eta Arantza Diez Aranburu azken 16 urteotan eskolako irakasle eta gaur egun zuzendaria denaren hitzetan, «ilusio handiz» hasi dute ibilbidea.

Nafarroako Gobernuak 2.685.774,34 euroko inbertsioa eginez, sei unitate, ingelesko, musikako eta orientazioko gelak, jantokia, sukaldea, zuzendaritza eta irakasle gelak, gimnasioa, aldagelak, komunak eta patioa dituen eskola egin

du eta emaitzaren kontent daudela azaldu dute Diezek, Mixel Gereka Zelaia azken 27 urteotan eskolako irakasle denak eta 2011tik 2019ra zinegotzi izanak, Mari Jose Bereau Baleztena 2011tik 2019ra alkate izandakoak eta Jabier Bereau Mikelarena egungo alkateak.

Gabeziak

Urte luzez sumatu dituzte eskola zaharraren gabeziak: azpiegitura zaharkitua, toki falta, lege aldetik hutsuneak... 1989an zaharberitutako udaletxean izan dute orain arte eskola, eta

**HAINBAT GABEZIA
IZAN DITUZTE
UDALETXEAN IZAN
DUTEN ESKOLAN**

udalarekin eta herriko ostatuarekin partekatu behar izan dute, momentuko beharretara egokitzeko herriko etxeko lau solairuetan goiti eta beheiti ibiliz. Izan ere, azken urteotan matrikulazioa nabarmen hazi da Pulunpan, 30-40 ikasle izatetik 70 izatera pasatuz, eta ikasle kopuruaren gorakadak sortutako toki eskasiari udal artxiboa eta ostalarien pisuaren zati bat ikasgela bihurtuz erantzun izan diote.

Bertzelako ezintasunak ere izan dituzte eta Gerekaren irudiko, «eskola zaharra legez

**GOBERNUAK 2,6
MILIOI EUROKO
INBERTSIOA EGIN
DU ESKOLA EGITEKO**

kanpoko» zen: «ostatuko tximiniak su hartu eta bi aldiz atera behar izan dugu eskolatik ume eta guzti. Eskolak baldintzak betetzen ez zituela ikusita eta arriskutsua zela adieraziz, suhiltzaileek txosten bat ere sinatu zuten. Norbaitek eskolara makuluekin edo gurrpil-aulkian sartu behar bazuen, besoetan sartu izan da. Gaur egun halakoak ezin dira planteatu ere egin, urteekin eskakizunak aldatu diren seinale».

Errepidea eta plaza izan dituzte bertze kezka iturri; Diezek erran bezala, «trafiko handia duen errepide nagusia» atarian izan dutelako, eta Gerekak oroitarazi duenez, «jolaslekua plaza» izan delako, «aldi berean, kotxeentzako tokia izan dena».

Covid-19arekin gabeziak are ageriago gelditu dira: «Salto gela eta jantokia ganbaran izan ditugu eta osasun egoerarekin salto gela ezin izan dugu erabili, jantokirako distantziak bermatu ahal izateko eremu osoa jantoki bihurtu genuelako. Irakasleon gela, berriz, ttikia zenez, ezin genuen klausurorako erabili», kontatu du Diezek.

Ibilbide luzea

Eskola aspaldiko eskakizuna izan dute Iturenen, eta Gerekak berretsi duenez, «udal guztiek beti izan dute eskolaren proiektua aurrera ateratzeko gogoia». Bide horretan, udalak 1996an eman zuten lehenbiziko pausoa, estreinatu berri duten ikastetxea dagoen lur eremua erosi zuten. Eskolaren maketa ere egin zuten, baina bere horretan gelditu zen: «tokia egokia ez zela iritzita, uko egin zioten eskola hor egiteari», onartu du Jabier Bereauk.

Geroztik bertzelako proposamenak landu dituzte. Pisizifikatua zegoen tokian eskola egiteko eskariak, erraterako, ez zuten gobernuaren erantzun ofizialik jaso. Horrez gain, 2009-2011 agintaldian, orduko udalak Landa izeneko eremuan eskola eraikitzeke proiektua prestatu zuten, «hirigintza pla-

narekin izandako zenbait arazo tarteko, alde batera gelditu zen».

2016an, udalak Landan egin zuen berriz saiakera, baina «ekonomikoki ezinezkoa izan zen. Udalak ezin zuen Landako lurrengatik eskatzen zutena bere gain hartu», aipatu du Mari Jose Bereau orduko alkateak. Ez zuten etsi, ordea, eta gobernutik eskola egiteko eskatzen zieten baldintzetako bat lurra izatea zenez, 1996an erositako lur eremuan berriz saiatzea erabaki zuten. 15 urte lehenagotik ezin izan zutena orduan lortu zuten: gobernuak exijitutako eguzkialdi azterketa egin ondotik ontzat eman zuten eskola hor eraikitzea.

Luzatu eta luzatu

Geroztik «kontseilariekin, obrako zuzendariarekin, proiektuaren arduradunekin, arkitektoekin... bilerak eta deiak aunitz» izan direla dio alkate ohiak: «gobernuarekin harreman ona izan dugu, baina goiti eta beheiti ibili gara, bazuetan itxaropenez gainezka eskola eginen zutela segurutzat joz, eta bertezetan gibelera eginez».

Horren harira, «burokrazia izugarria» nabarmendu du Gerekak: «gure agintaldian hasieratik eskatu genuen gobernuarekin gaia berrartzeko bilera, eta lau urte beranduago hitzez proiektua eginen zutela, lehentasunezkoa zela eta lasai egoteko erranez bukatu genuen. Baiezkoa erran bai, baina noiz?». Bide beretik jo du zuzendariak eta parlamentariak eta kontseilariak eskolara egindako bisitak ekarri ditu gogora: «denek ikusi zuten zein zen gure egoera, eta zerbait egiteko beharra onartu ere bai, baina beti arazoak sortzen ziren, momenturo goxokia eman eta kendu ariko balira bezala». Gisa berean, «egunerokoan jendearen aldetik sumatu dugun ez-kortasunak» ez omen die gehiegi lagundu: «gogorra izan da 'eskola noizko?', 'ez dute eginen' behin eta berriz aditzea».



Ezkerretik hasita Mixel Gereka irakaslea, Mari Jose Bereau alkate ohi, Jabier Bereau alkatea eta Arantza Diez zuzendaria.

2017/2018 ikasturterako «ahoz proiektua onartua» zegoela adierazi du Gerekak, «hiru urteren buruan ailegatu da». Gobernuak eskola eraikitzeo argitaratu zuen lehenbiziko lizitazioa esleitu gabe gelditu zen eta 2019ko uztailean egin zuen bigarren saiakera, 2.235.910,87 euroko aurrekontua aurreikusita, alkate ohiak oroitarazi duenez, «lehenbiziko aldian baino 800.000 euro gehiagoko aurrekontuarekin».

Oztopoak eta saltsak

Argi utzi dute han eta hemen oztopoak izan dituztela, gobernuarekin ibilitako bueltetz gain, herri mailan ere tirabirak izan baitituzte. Mari Jose Bereauk aitortu duenez, «eskola

eremua urbanizatzerakoan herritarrekin saltsak sortu ziren». Egungo alkateak, berriz, 2019ko azaroan obrak hasitaikoan mendia erori izanak ere «eztabaida handia sortu» zuela kontatu du, baina konpondu dutelagaineratu du: «gobernuak ia bertze 500.000 euro gastatu ditu mendia egonkortzen eta orain badakigu ongi dagoela».

Egonkortze-lanek eta pandemiak obra gehiago luzatu dute, berez irailean irekitzekoa zena ilbeltzean egin baitute. Baina Diezek dioenez, «ibili eta buelta lortu dugu behar genuena eta eskerrak emateko ordua» da. «Udal guztiei eskerrikerri beroenak» eman nahi izan dizkie «denak beti gure alde aritu direlako», baita gober-

nuari ere «halako eskola eraiki eta hain ongi hornitzeagatik», familiei «beti laguntzeko prest izateagatik», ikasleei «hain zintzo eta gustura egoteagatik», eta irakasle guztiei ere bai.

Hurrengo pausoak aparkalekua eta eskolara oinez joateko bide segurua egokitzea izanen dira. «Udalarekin elkarlanean, eskolara oinez etortzeko proiektua aurten egitea» gustatuko litzaioke Diezek. Aparkalekua, berriz, martxan dutela argitu du alkateak: «eskola atarian udalak lurra erosi du eskolarako aparkalekua egiteko eta bide batez, herriak duen aparkatzeko arazoa konpontzeko».

Etorkizuneko erronkak go-goan, aspaldiko erroka behinik behin bete dute eta Gerekaren ustez, «lorpen handia» izan da, «bai eskolako kideontzat, bai herriarentzat». Diez, berriz, etorkizuna ziurtatu dutelakoan dago: «eskola herri baten bihotza da, eta berria eraikiz etorkizunean eskola herrian izanen dela ziurtatu dugu».

Ezkurra, Zubieta, Beintza-Labaien, Eratsun... Urteotan Malerrekian itxi dituzten eskolen zerrendaluzea da. Iturenen, ordea, berria egin dute. Sunbillan izanen da hurrengoa, Hezkuntza Departamentuak 2023rako aurreikusi duena.

Kontsumo ia nuluko eraikina

Eskola modernoa, argitsua eta solairu bakarrekua estreinatuta dute Iturenen, eta gobernuaren hitzetan, kontsumo ia nuluko eraikina da. «Berokuntza-sistema zoru erradiatzailea du eta leihoak ireki gabe, eraikina bera bakarrik aireztatzeko presaturatua dago», dio Jabier Bereau alkateak: «Sistemak CO₂ kopuru jakin bat detektatzen duenean, airea garbitzen hasten da. Barreneko airea haizagailu batek atera eta kamara batetik pasatzen da. Kanpotik datorren airea bertze haizagailu batetik sartzen da eta bitartean berotu egiten du. Hala, airea garbi mantentzen du, berotasuna galdu gabe».

64 taldek parte hartu dute Santa Barbarako igoeran

XIV. Mendi Egunaren baitan, sarrera guztiak agortu ziren 'Cholitas' dokumentala ikusteko

IZASKUN REKARTE

Guztira 64 bikotek eta hiru-kotek hartu zuten parte ilbel-tzaren 9an Manttale Mendi Lasterketa Taldeak antolatuta-ko Berako XIV. Mendi Egu-nean. Aurten, Covid-19aren erruz egin beharreko murriz-keten ondorioz, ohiko progra-ma bi jardueratara mugatu zen: Santa Barbarako kronoes-kalada eta mendiaren ingu-ruko dokumental baten eman-dialdia.

Santa Barbarako kronoes-kaladan 70 bikotek eta hiru-kotek emana zuten izena, baina azkenean 64 atera ziren 5,5 kilometro inguruko ibilbi-dea egiteko. Zirkuituaren za-tirik altuena elurtuta zegoen, baina ez zen ezbeharririk izan. Ez zen ohiko mendi irteera antolatu, baina mendizale anitzek haien kabuz bira zir-kularra osatzea erabaki zuten.

Bikote eta hirukoteek minu-tuko tartearekin egin zuten irteera, eta bakoitzak dortsala borts minutu lehenago jaso zuen, pilaketarik gerta ez zedin. Gainera, parte-hartzaile guz-tiek maskara paratuta eraman

zuten erlojuaren kontrakoaren aitzinetik eta ondotik. Ohikoa denez, izen-ematea doakoa izan zen, lasterkariak buka-tzerakoan poltsa bat jaso zu-ten produktu gastronomikoe-kin, eta oparien zozketa ere egin zen. Denborak hartu ziren, baina ez zen sailkapenik egin ez eta honen arabera saririk eman ere.

'Cholitas' dokumentala

Erlojuaren kontrakoaren on-dotik, kultur etxean *Cholitas* dokumentala proiektatu zuten. Covid-19ak jarritako murriz-keten ondorioz, kultur etxea-ren edukiera erdira mugatu zen arren, eskura zeuden 103 sarrerak (edukiera posible guztia) agortu egin ziren.

Manttaletik eskerrak eman nahi dizkiete XVI. Mendi Egu-na ospatzen lagundu duten boluntario, parte-hartzaile eta publikoari. «2022an egoera normalera itzultzea espero dugu, Xabier Zubietta, Xabier Saralegi eta Loro Pikabearen omenez urtero egiten ditugun jarduera guztiak berreskura-tzeko», diote.



Bi parte-hartzaile Santa Barbaran beheiti. UTZITAKOA



Noiz izan den parte-hartzerik handiena izan zen. UTZITAKOA



Hotzari eta elurrari kontra egin behar izan zieten korrikalariak. SAIOA ZELAIETA

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Arduo

arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com

Ordutegi mugatuko 20 aparkaleku paratu ditu udalak

Merkataritza-ordutegira mugatzen diren plaza hauek kolore urdinarekin eta zerrenda gorriekin seinaleztatuko dira

IZASKUN REKARTE

Herriko mugikortasun eta trafikoa aztertu ondotik «merkataritza establezimenduak dituzten zenbait karriketan aparkalekuak txandakatzeko tokiak ezartzeko beharra» ikusi du udalak.

Behar hau asetzeko asmoz «ordutegi mugatuko 20 aparkaleku» egokitu dituztela jakinarazi dute Aitor Elexpuru eta Esteban Aguirre udalkideek. Adierazi dutenez «Kanttonberri karrikan ordutegi mugatuko hamar aparkaleku paratu dira; lau Altzate karrikan, lau Altzateko plazan eta bi Mukixu Haur Eskola ondoan».

Aparkaleku hauek «erabiltzeko araubideak» izan dituztela iragarri dute, «aparkatzeko gehienezko denbora 30 minutukoa izanen da. Ordutegi merkataritzakoa izanen da: lanegunetan, astelehenetik ortzirralera 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara. Jai ez diren larunbatetan 09:00etatik 13:30era. Ordutegi horretatik kanpo aparkatzea libre izanen da».



Aparkatzeko ordu-diskoia

Jakitera eman dutenez «denbora kontrolatzeko, dendan ordu-disko bat eskatu beharko da, eta han aparkatzen den ordua zehaztu». Gainera «ibilgailuaren gidariak haizetakoa-ren barruko aldean paratu beharko du diskoa, kanpotik ikusteko moduan».

Erosketak edo kudeaketak egiteko «ordu erdiko denbora izanen da, eta bukatutakoan, ordu-diskoia jaso den establezimendura itzuli beharko da». Baldintza horietan aparkatzen dutenek «ez dute deus ordaindu beharko eta arau-hausleek ordenantzan ezarritako isuna ordaindu beharko dute».

Klima eta Energiaren aldeko Alkateen ituna sinatu du udalak

Ilbeltzaren 15ean Nafarroako hainbat udalek Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatu zuten, tartean Berako Udalak. Itun honen helburua 2005eko negutegi efektuko gasen isurien inbentarioa egin eta isuriak %40 murriztea da.

Inbentarioa egiteko lau sektoreen isuriak aztertuko dira: udal sektoreko eraikin, azpiegitura, argiteria eta ibilgailuena; herriko etxebizitzena, garraioarena eta hondakinena.

Hala ere, udalak ezin izanen ditu herriko industriaren eta herritik kanpoko errepideko

ibilgailuen isuriak aztertu, hortaz, udalkideek adierazi dutenez «datuak ez dira guttiz errealak izanen».

Otsailean neurri berriak

Ituna ilbeltzean sinatu bada ere, Nasuvinsak otsailean argitaratuko ditu 2005eko negutegi efektuko gasen isuriaz arzerketaren emaitzak. Hau erreferentzia gisa harturik, ondorengo hilabeteetan hainbat neurri hartuko ditu negutegi efektua sortzen duten gasak murrizteko eta 2005eko gasen isuria % 40 guttitzeko.



UTZITAKOIA

Egoiliar guztiak txertatu dira

Ilbeltzaren 18an ailegatu da txertoa zahar etxera. 35 egoiliarrek jaso zuten dosia (egoiliarren %100) eta 31 langileetik 30ek. Bigarren dosia otsailaren 8an ailegatuko da eta, Amaia Pandok, zahar etxeko arduradunak, adierazi duenez «gogotsu» daude bigarren dosia jasotzeko.

JAIONE - COKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Alberto RETEGI
abokatuak
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

LABE ZAR
Astelehenetik ortzirralera: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA



Mikroipuinak, elkarrizketa biziak eta isiluneak tartekatzen ditu istorioak. MAIRU

Mairu antzerki tailerrak 'Iluntzen' estreinatuko du

Urtarrilaren 30ean, larunbatean 18:00etan eskainiko du antzezlan Harriondoa Kultur Etxean

AITOR AROTZENA

Mairu antzerki tailerrak *Iluntzen* lanaren estreinaldia egingen du urtarrilaren 30ean, larunbatean 18:00etan Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Gaizka Sarasolaren testuan oinarrituta eta Manex eta Ximun Fuchsen kanpo begiradapean, Iban Garro, Gaizka Sarasola, Juanen Saralegi eta Ritxi Abril aktoreak izanen dira oholtzan eta bertze lan-talde zabala gibelean laguntzen.

Mikroipuinak, elkarrizketa biziak eta isiluneak tartekatuz, alegiazko istorio batean barneratu nahi du Mairu Antzer-

ki Tailerreko lan honek. «Surrealismo magikoaren kutsua eman, baina errealitatearen iluntasunari ihes egin gabe. Idazkera poetikoan sakondu, eta gordintasuna azalerazi» tailerreko kideek diotenez.

Animaliak protagonista

Alegia klasikoetan bezala, antzezlari honetan ere animaliak dira protagonista; baita mito eta kondairetatik eratorritako pertsonaiak ere. Pertsonak diruditen animaliak edo animaliak diruditen pertsonak. Alegiazko pertsonaiak azken finean.

Herrian matrikulatutako ibilgailuek bakarrik erabil ditzakete landa-bideak

A. AROTZENA

Landa-bideen erabilera eta aprobetxamendua arautzen duen ordenantza onartu du udalak eta horren berri eman du bando bidez.

Landa-bideak soilik Lesakan matrikulatutako ibilgailuen jabeek erabili ahal izanen di-

tuzte; gainerako jabeek baimena eskatu beharko dute. Ordenantza hau indarrean dagoela jakinarazi zaio Foruzaingoari.

Ordenantzaren testu osoa urriaren 27ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (250 zk.) argitaratu zen.

Etxebizitzari buruzko inkesta egiteko hondarreko egunak

Etxebizitzaren egoera aztertzeko ikerketa egiten ari da udala eta inkesta paratu dute herritarren eskura, ikuspuntu, behar eta arazoak sakonean aztertu ahal izateko. Inkestan helburua etxebizitza beharren argazki orokor bat egitea da, sakondu beharreko puntuak identifikatu eta ikerketaren bigarren zatian hauek garatu ahal izateko. 16 urtetik goitiko herritarrek inkesta betetzeko epea urtarrilaren 27an bukatuko da eta udalaren webgunean digitalki egitea lehenetsi dute.

Su-egur loteak eska daitezke otsailaren 12ra bitarte

Su-egur lote bakoitza bortz tonaingurukoa izanen da eta 200 euro ordaindu beharko da. Loteak Zanbrako zabalgunean utziko dituzte, edo zenbateko osagarri bat ordainduz, eskatzaileak adierazitako lekura eramanez dituztenek www.lesaka.eus webgunean egin dezakete eskaera edo 948 63 70 05 telefonora deitu datu hauek emanez: eskatzailearen izena eta harremanetarako telefonoa. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren 12an bukatuko da.



UTZITAKOIA

Txertoa eman dute Zahar Etxean

Andra Mari Zahar Etxean ere Covid-19aren kontrako txertoaren lehen dosia hartu zuten ilbeltzaren 18an. Bigarrena otsailaren 8an hartuko dute. 35 egoiliarretatik 33k hartu dute txertoa eta zahar etxean ari diren 34 langileetatik 29k.

 **Anterola**
Tekniko instalatzailea
**ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA**
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

 **DenokBat**
Hemen erabili
 **kattagorria**
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com



Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez lesakarrek eta Jon Abril beratarrak jasoko dute beka. UTZITAKOAK



Christiane Girauden eskulturak ikusgai daude Beran

TTIPI-TTAPA | BERA

Ilbeltzaren 16tik aitzinera Berako Labiaga Ikastolako Areto Nagusian, Christiane Giraud artista lapurtarraren burdinazko eta zurezko eskulturak ikusgai paratu dituzte. Erakusketa martxoaren 21a bitarte egonen da zabalik larunbatetan eta igandetan 16:00etatik 20:00etara.

Lapurtarrak bere sorkuntzari bizi guztia eskaini dio. Baionan, oraindik haurra zelarrik, Arte Eskolako Frédéric Dupuy maisuaren eskutik bokazio hori sortu zitzaion.

Maiatz argitaletxearen koordinatzailea den Lucien Etxezaharretaren hitzetan proiektu honetan «zuraren beroa eta burdinaren hoztasuna» elkarrekin dituzten Christiane Giraud artistak.



Girauden artelanak Labiagan.

Tene Mujika beka Bortzirietako hiru egilerentzat aurten

Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez lesakarrek, alde batetik eta Jon Abril beratarrak, bertetik, lortu dute saria

TTIPI-TTAPA

Sari bat ez, baizik eta bi ematen ditu aurten Tene Mujika sariak. Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako beka honek. Aurten proiektu ugari eta maila handikoak aurkeztu ziren; horien guztien artean, saria bi lani *ex-aequo* ematea erabaki du Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaia, eta Debako Udalak, berriz, saria bitan banatu ordez bikoizteko erabakia hartu

du: 6.000 euro irabazle bakoitzarentzat.

Orain urtebeteko epea izanen dute irabazleek nork bere lana burutzeko, eta 2022an liburu gisa plazaratuko dituzte biak Elkar argitaletxeak.

Saritutako proiektuak

Erika Lagoma Pombar (Lesaka, 1981) eta **Estitxu Fernandez Maritxalar** (Lesaka, 1975) eskuz esku arituko dira amatasun disidente eta feministak erakutsi nahi dituzten elkarriketa-sorta bat ontzeko. Amaren irudi patriarkal estereotipatuaz gaindi, eta *super-*

woman-en amatasun neoliberaletik urruti, egungo sistema zalantzan jarri nahi duten ama izateko moduak: askotarikoak, kontraesanean uko egiten ez dietenak. Hamaika bizipen, hamaika praktika, hamaika esperientzia. Eta horien ondoan, beren aitatasuna feminismitik bizi nahi duten bi gizekoren kasuak.

Jon Abril Olaetxea (Bera, 1975) kazetari eta kultur dinamizatzaileak Euskal Herrian barna emakumeek izan dituzten lanbideen erakuspen zabal bat eskaini nahi digu, *Ezkatututako eskuak: emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian* proiektuan. Lehendik ere Nafarroatik Lapurdira neska joaten ziren neskaen historia aritu izan da, eta orain, hari horretatik eta bertze batzuetatik tiraka, antzeko istorio gehiago osatu nahi du, elkarriketa sakonen eta bertze iturri batzuen bidez, guztira hamaika lanbide erakusteko gure geografian barna.

Xarbotak taldeak irabazi du Berako Egeberrietako kanten lehiaketa

TTIPI-TTAPA | BERA

Berako Udalak Egeberrietako kanten lehiaketa antolatu du lehen aldiz eta saridunak *Xarbotak* taldea eta *Zu eta ni* bideoak izan dira hurrenez hurren. Bi bideoak udalaren Youtubeko *Kultur Pilulak* kanalean ikusgai daude. Epai-

mahaia Igor Telletxea Berako bandako zuzendariak, Fatima Gonzalez Berako abesbatzako zuzendariak eta Estitxu Pinatxo kultur zinegotziak osatu dute. Lehendabizikoek 300 euroko saria irabazi dute eta bigarrenak 200 eurokoa.



erran.eus webgunean ere ikus daitezke bideoak.

ETXALAR


Mendi federazioko txartelak egiteko deialdia irekita

Ordainketa norberak www.nafarmendi.org bidez egitea lehenetsiko dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Bertze urte batez, Altxatak mendi federazioko txartelak egiteko deialdia zabaldu du. Bizi dugun egoera dela eta, lizentziaren alta eta ordainketa norberak Internet bidez egitea lehenetsiko du. Interneten www.nafarmendi.org orrialdean bete

behar dira datuak. Norberak lizentzian alta emanda ere, ondotik Altxatari abisua pasatu beharko dio federazioaren txartelak hartzeko. Izan ere, txartelak Altxatakoek bakarrik jaso ditzakete. Federatua altan egonen da 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.



UTZITAKOIA

Mendiak zurutuak

Herriraino elurrik iritsi ez bada ere, mendi inguruak ederki zurutu ziren urtarrilarekin batera. Elurrarekin gozatu nahi zuenak urruti joan gabe aukera paregabea izan zuen. Udalak, gainera, hotz handiek sor ditzaketen hormaren kontra gatzat dohainik eskuragarri jarri du Usoa kooperatiban.



IRATI LUJUA

Presoen aldeko elkarretaraztea

Aurten, osasun krisia dela eta, Bilbon presoen aldeko mobilizaziorik ez da izan. Horregatik, ordu berean herrietan bildu eta argazkia ateratzeko deia egin zuen Sarek. Etxalarren, bertze herri aunitzetan bezala, urtarrilaren 9an egin zen argazkia herriko plazan.

Janari-denda Usoa kooperatiban eta eskolako egutegiak

Urte berezia izanagatik, egoerara moldatzeko lanean ari dira herritarrak. Usoa kooperatiban azken urteetako aldaketekin segitu dute. Janari-denda zerbitzua eskaintzen hasi ziren eta antolatu, hotz kamerak jarri, elikagaiak sartu eta kobratze sistema berri dute. Guraso elkarteak, aldiz, eskolako haurrekin osatutako argazki muntaia bat erabili du aurtengo egutegia egiteko eta bortzeurotan eskura daiteke kultur etxean, plazako dendan eta herriko okindegian.

Metrobaserri proiektuaren bigarren fasea abian

Baserri auzoetako sarreretan, baserri bakoitzaren identifikazio zenbakia agertuz, panel horiak jarri ditu udalak. Horrez gain, Landaburu ondoko autobus geltokiaren paretan, Etxalarko mapa paratu dute, auzoetako etxebizitza guztien kokapena adieraziz. Helpbidea edo Metrobaserri proiektuaren bigarren faseko lanak izan dira hauek. Edozein ezbeharraren aitzinean baserriak errazago identifikatu eta hauek xuxen ailegatzea da helburua.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

«Fisikoa garrantzitsua da baina burua hotz mantendu behar da»

AXUN ELIZALDE ARIZTEGI ETXALARKO BASERRITARRA

EITBko 'Baserría' saioan parte hartu du Axun Elizalde etxalartarrak eta baserritarren taldean bizi izandakoaren berri eman dio TTIPI-TTAPA aldizkariari

I. REKARTE | ETXALAR

Amaiurren grabatu zen *Herri txiki, infernu handi* saioan azaldu zen Axun Elizalde Ariztegi etxalartarra eta baserriko lanak egiteko bere abileziagatik EITBk estreinatu duen saio berrian parte hartzeko dei egin zioten, eta berak erronka onartu zuen.

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Pertsona alaia, nahiko urduria, langilea eta bi umeren ama naiz. Jaiotzez etxalartarra naiz, nahiz eta aspaldi Amaiurren bizi.

Zein dira zure zaletasunak?

Azienda eta baserriko bizimodu aunitz gustatzen zaizkit, baina ni aspaldian joana naiz baserriatik. Etxalarren, gurasoen etxean, behi esnedunak genituen, baina gurasoek aspaldi saldu zituzten etxeoket baserriko martxarekin segitzeko asmorik ez genuela ikusirik. Hala ere, Amaiurren kasik bi urtez igandetan behiak jezten aritu naiz. Diru truke aritu banaiz ere, afizioa nuen.

Zer da Baserría saioa?

Baserría saioa, niretzat aukera bat izan da. Momentu horretan hagitz estresatua nengoen. Konfinamenduan umeekin, bortz eta hiru urtekoak, etxean egon nintzen eta gainera, lana utzi nuen. Momentu gogorra izan zen eta aukera hau eskaini zidatenean nire errutinatik ateratzeko ihesbide gisa ulertu nuen.

Saioaren grabaketa noiz hasi zenuen?



Baserría saioan gustura aritu dela adierazi du etxalartarrak.

Grabaketa irailaren 28an hasi genuen. Saioan sartzeko parte hartzaile guztiak PCR proba egin behar izan genuen eta gero han denak maskararik gabe ibili ginen eta niretzako ikaragarrizko askatasuna izan zen. Ni hagitz maitekorra naiz, bersarkadak ematea aunitz gustatzen zait eta bertan askatasun hau izan nuen.

Zein proba mota egiten zenituzten?

Probetako bat gurdi batekin oztupoak gainditzea zen, bertze batean, malda batean zeuden kalabaza batzuk hartu behar izan genituen eta ondotik pisatu, ardiak itxituretan sartu... Batez ere, jarduera fisikoak egin ditugu. Eta niretzat saioak izan duen makurrena hori izan da. Denbora aunitz pasatzen duzu

saioa grabatzen, baina proba egin ondotik ordu aunitz pasatzen genituen deus egin gabe. Esperoan zinen eta bat-batean probarekin hasten zinen, zero-tik ehunera segundo gutitan, eta hori arront gogorra egin zait. Ehuneko ehuna eman behar duzu eta nik igual, zentzu horretan, ez nuen espero zena eman, nerbioak tarteko zirela. Gainera, kamera aitzineko presioa handia da. *Herri txiki, infernu handi* saioan dena ongi antolatua dago. Zuretzat ezaguna den leku batean eta zu prest zaudenean zure abileziak erakusten dituzu. Dena aitzinetik prestatua eta lotua duzu. Aldiz, *Baserría* saioan modu inprobisatuan proba batzuetan lehiatu behar duzu. 40 minutuz

proba grabatzen duzu eta gero, ahantzi egiten zara. Gainera, saioa leku arrotzean jende ezegunarekin gauzatzen da. Baina esperientzia hagitz polita izan da. Nik negar pila egin dut. Hustu naiz, baina hori behar nuen.

Aipatu duzunez, saioan ez zenuen zuk eman izena...

Ez, Amaiurko *Herri txiki infernu handi* saioan agertu nintzen. Ez zidaten deus abisatu, EITBkoek Amaiurko alkateari deitu eta honek nire telefono zenbakia eman zuen niri deus erran gabe eta ezusteko handia izan zen. Baina bueno, niri ez zait inporta, hagitz jende artekoa naiz.

Zuzenean baserritarren taldean sailkatu zintuzten...

Nik aipatu nien ttikitatik baserrian hezia nintzela, baita duela 15 urte ez garela bertatik bizi ere. Baina «zu baserritarren taldean egonena zara» erran zidaten eta horrela sailkatu ninduten. Bikoteak sortu zizkiguten, baserritar bat eta kaletar bat. Eta berarekin ongi eraman behar zenuen. Egia erran, ez nuen ezberdintasun handia sumatu nire eta kale-tarraren artean.

Zein izan da proba zailena?

Zailena gurdiaren proba izan zen, hagitz fisikoa baita. Hori garraiatu beharra lohiarekin... Eguraldiak ere ez zuen sobera lagundu, lehen egunean ona egin bazuen ere, gainerako egunetan euria eta hotza egin zuen, eguraldi guztiz kaxkarra. Fisiko handia eta indarra due-nak errazago egiten zituen proba hauek, baina, ni nire 50 kiloekin, mugatuago nengoen.

Zein dira saioan parte hartzeko behar diren gaitasunak?

Nik beti pentsatu dut fisikoaz gain zeure burua gainditzeko nahia dela garrantzitsuena. Nire kasuan, ez dut hau egin inori deus demostratzeko, nire ingurutik atera eta zerbait ezberdina probatu nahi nuen. Fisikoak laguntzen du, noski, baina, burua ere izan behar duzu. Burua hotz mantentzen jakin behar da, proba aztertu.

Inauterien seinalea otsailaren 4an eginen dute eskolan

Eskolako bizikidetzak taldeak errespetatuz, arratsaldean herri kirol saioa eginen dute baina ez da herriari irekia izanen

NEREA ALZURI

Egungo osasun egoerari egokituz, herriko inauteriei keinu bat egiteko asmoa dute eskolan. Hala, otsailaren 4an, ikasleak, urtero bezala, mozorro zuriz mozorrotuak joanen dira eskolara. Arratsaldean herri kirol ekitaldia eginen dute, baina ez da herriari irekia izanen. Ikastetxeko bizikidetzak talde burbuilei zuzendua izanen da.

Bertzalde, hurrengo urteei begira, eskolako hezkuntza proiektua berritze prozesuan dute. Xedea, Ikuskera eta Ba-

loreak dokumentua berritu nahi dute eta hezkuntza komunitate osoari egin diote prozesuan parte hartzeko deia.

Irakasleriak dagoeneko gaia landu du eta zirriborro bat prestatua du. Behin hori egin da, hurrengo betebeharrak gurasoen ekarpenak jasotzea izanen da.

Dokumentu honetatik abiatuta, hurrengo lau urteetarako ikastetxeko plan estrategikoa diseinatuko dute (2021-2025), eta urtez urteko programazio orokorrekin garatuko dute.

Bortzirietako nobiliariorari buruzko liburua udaletxean

Bortzirietako iragan historikoa aztertzen duen *Bortzirietako nobiliaria*. *Noblezia, kaparetasuna eta odol-garbitasuna egiaztatzeko frogantzak* (XVI-XIX. Mendeak) liburuararen ale bat liburutegian dagoela adierazi dute udaletik. Herriko etxean erosi ere egiten daiteke.

'Sugarren mende' liburuararen aurkezpena eskolan

Duela 400 urteko sorgin ehiza hizpide hartuta, *Sugarren Mende* album ilustratua egin du Asisko Urmenetak, Helena Xuriok egindako ikerketetatik abiatuta. Eta otsailaren 6an, udalak antolatuta, liburua aurkeztera etorriko dira eskolara. 18:00etan izanen da.



UTZITAKOIA

Presoak etxeratzeko eskatu dute plazan

Sarek egindako deialdiarekin bat eginez eta eguraldi txarrari gogor eginez, hainbat lagun bildu ziren ilbeltzaren 9an herriko plazan presoak etxeratzeko aldarriarekin bat egiteko. Aurten Bilbora edo Baionara joatea ezinezkoa izan da, baina elkartasun keinuek ez dute huts egin.



XABI ZUGARRAMURDI

Mendi eskian urrutira joan gabe

Elur azkarki egin du aurten, eta batez ere mendi gain eta inguruak ederki zuritu dira. Elurra maite dutenek gogotik probestu dute eta bideo eta argazki ederrak ikusi ahal izan ditugu. Mendi eskia egiteko ere probestu dute zaleek, urrutira joan gabe horretarako aukera izan baita.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortzirralera



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Miren Camisonekin haur filosofia landuko dute aurten

Ikasgaia zer den erakusteko eta azaltzeko bilerak eginen ditu datozen asteetan gurasoekin

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aurten, eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Miren Camison adituarekin haur filosofia izeneko gaia landuko dute. Gauden egoera berezian egonda, ikasturte honetan ez dute yoga landuko ikastetxean. Emozio Hezkuntzako programazioa osatzeko, haur filosofia lantzea erabaki dute eskolan.

Hurrengo asteetan Miren Camisonek, haur filosofia zer den azaltzeko, gurasoekin elkartu eta hitzalditxoa emanen du.

Mendian eta bizikletan federatu Biltoki elkartearen eskutik

Igantzi Biltoki elkarteak mendi eta bizikletako federazioko tramiteak egiten ditu herritarrentzat. Bere egunean federatzeko eskaera egin zutenak egun hauetan jasoko dute txartela. Mendian federatutakoek txartel fisikoa izanen dute. Bizikletan federatutakoek, berriz, txartel birtuala izanen dute aurtengoan.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Etkez etxe ibili ziren errege magoak

Ilbeltzaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar herrira hurbildu zitzaizkigun. Bertze urteetan egiten den moduan aurtengoan ezin egin eta, jende multzoak ekiditzeko, erregeak etkez-etxeo ibilbidea egin zuten. Haurreei ilusio ederra egin zien beraien opariak etxeo atarian jasotzea.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu





IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net **943 616 587**

Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

N-121-A Sunbillaraino 2+1 bide bihurtzea onetsi dute

40+900KPtik 52+430KPrainoko tartea (Arrigazteluko tunelerraino) 2+1 bide bihurtzeko proiektua onetsi dute

MAIDER PETRIRENA

Bide segurtasuna hobetzeko helburuz, N-121-A errepidean 40+900KPtik 52+430KPrako tartea (Arrigaztelu tuneleko hegoaldeko ahorraino), 2+1 motako bide bihurtzeko proiektuari behin-behineko onespina eman diote.



Kamioia Sunbillako bidegurutzean.

Alegazioak aurkezteko hilabeteko epea

Behin-behineko onespina urtarrilaren 19an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik, proiektuak ukitutako ondasun eta esku-bideen desjabetze espedienteari hasiera emanen diote (urtarrilaren 19ko aldizkarian, eranskinen atalean, ageri da ondasun eta esku-bideen zerrenda). Era berean, proiektua jendaurrean paratuko dute hilabetez, bai proiektuaren eduki teknikoari baita lurra okupatu beharri dagokionez, desjabetu ahal izateko. Epe horretan, egokitzen diren ohar edo alegazioak egiten ahalko dira, idatziz. Interesdunek eskura izanzen dute proiektua Lu-

rralde Kohesiorako Departamentuko Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren web-orrian eta Baztango, Bertizaranako, Doneztebeko eta Sunbillako udaletxeetan.

Modu berean, aipaturikoforu agindu hau Azterlan eta Proiektuen Zerbitzuari, Desjabetze Atalari eta Baztango, Bertizaranako, Doneztebeko eta Sunbillako udalei jakinarazi beharko diote, eta azken horiek premiatuko dituzte, horrela, beraien udaletzeko iragarki-tauletan argitaratzeko.



SAIZ

Santa Barbarara igoeran

Urtarrilaren 9an, Berako Mendi Egunaren hamalaugarren edizioa antolatu zuten eta urtero bezala, Santa Barbarara kronoigoera egin zuten. Igoera horretan, bikoteka, parte hartu zuten Eneko Herrera herritarrek Ibai Berregi aurtiztarrarekin.



UTZITAKOA

Nafarroako arpana txapelketa mistoan

Urtarrilaren 17an Unai Bertiz Anzizar eta Esti Gastearena Villanueva herritar bikoteak Nafarroako arpana txapelketa mistoan jokatu zuten Lekunberrin. Nahiz eta egindako lanarekin ez ziren kontent gelditu, hurrengoan hobetzeko aukera izanzen dute. Zorionak eta segi horretan.

Ttipi Txartela

rekini beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktak bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

773

aleko irabazleak >



- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Sagrario Sukuntza Zabaleta | LEITZA
- Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Juan Larre Arraztoa | ELIZONDO
- Okille - Eguzkilore bat
Gaizka Maritxalar Olagarai | LESAKA
- Galaxy Park - 2 sarrera
Feliciano Zabala Zabala | HERNANI
- Lesakako kiroldegia - 2 sarrera
Eneritz Rekarte Bengoetxea | BERA
- Arkupe gozotegia - Lote bat
Jose M^a Lana Moreno | DONEZTEBE
- Katxiporreta - Disko bat
Begoña Vertiz Arrastio | NARBARTE
- Katxiporreta - Disko bat
Alaitz Karrikaburu Barrenetxe | BERROETA

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

KARTING INDOOR IRUN

www.kartingindoorirun.com



Zirkuitu tekniko eta dibertigarria adin guztietarako, kalitate goreneko instalazioetan

Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera


ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

LIBURUAK



- Lotara!
- Mitxi neguan

TTARTTALO

www.ttarttalo.eus

LAGUNTZAI LEAK



<http://wowpark.fr>



www.mendukilo.com



Tailerretan bakardadea, etorkizuna, arazoak... izan dituzte hizpide.

Adinekoen bizi kalitatea aztertu du Garbiñe Olazarrek

Ezkurran egindako tailerretan «bertako adinekoen bizi kalitatea adin berekoena baino askoz hobea» dela ikusi du

TTIPI-TTAPA

Eratsun eta Ezkurran bizi diren hainbat adinekoen bizipenei ahotza eman eta euren bizi kalitatea aztertzeko tailerrak izan dituzte sei astez Ezkurran. Gurutze Gorriak elkarteak sustatutako proiektua lantzen aritu da Garbiñe Olazar: «hainbat gai landu ditugu, bakardadea zer den eta nolakudeatu daitekeen, zer-nolakoa izan den gure etorkizuna, nola egiten diegun arazoei aurre...».

Datu soziodemografikoei begira, Ezkurran eta Eratsungo biztanleriaren adina «bailara osoko batatzekoarekin alderatuz altuagoa» da eta «gainerako herri batzuetatik sakabanatuago egoteaz gain, «zerbitzuak ere murriztagoak dira». Hori guztia kontuan hartuz, «isolamendu edo bakardade maila altuko» herriak diruditen arren, Olazarrek errealitatea

bertzelakoa dela ondorioztatu du: «biztanleen arteko harremana izugarria da. Ezkurran elkarlaguntza dute oinarri eta komunikatean egiten dute lan. Konfinamenduak erakutsi du adineko zein gazteen beharrak asetzeko adina baliabide dute-la». Tailerretatik bi ondorio nagusi atera ditu iturendarrak. Batetik, «bakardadeak ez dela zertan txarra izan» ikusi du eta «aukeratzen ez dugun bakardadea» ailegatzen denean garrantzitsuena «asimilazioa» dela nabarmendu du. Eta bertzetik, «bertako adinekoen bizi kalitatea, euren adineko agurrenarekin alderatuz, aunitzez hobea» dela adierazi du. Emaitezkin eta partekatutakoarekin kontent da Olazar eta esker oneko hitzak ditu guztientzat: «Segi bide beretik eta eskerrik asko emandako laguntzagatik Jaione eta Edurne».

Loteria

Elkarteak Eguberrietan saldutako 92.907 zenbakian jokaturakoa errekuera daiteke Caixabank banketxeko edozein bulegotan martxoaren 22a baino lehen.

GUTUNA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Urte hasiera zalantzaz josia

Irakurle preziatua, kaixo eta urte on!

Orrialde honetan Arkupeak elkartearen nondik norakoen berri ematen dugu hamabostero. Hori hala izanik, barkatuko dit irakurle orok lerro hauek jubilatuta edo adin nagusiko lagunei zuzenduak izatea.

Hamar-hamaika hilabete daramatzagu borrokan zomorrot maltzur honen aurka, eta osasun adituek ere ez dakite oraindik noiz arte luzatuko den hain petrala gertatzen ari zaigun borroka. 768. zenbakian bidali nizuen elkartearen izenean azkeneko elkartasun-agurra, eta han irakurri zenituztenak hitzez hitz errepika daitezke urte berri honen hasieran ere. Orduko kezka, ezinegon eta buruhauste bertsuek jarraitzen dute, gaur egun ere, gure gogoeten ardatz nagusi izaten.

Agian, gu edo gure ingurukoren bat lanik gabe gelditzea suertatu da... Gu artatzeagatik, hainbat osasun-zaintzaile arriskuan edo kutsatuak izan dira... Zer erran, eta batez ere nola ahanzi, 2020an gaitz bat edo bertzea dela eta, sendikoren bat galdu duten familien hutsa eta samina. Besarkada bat eta animoak denoi! Aipatzen nuen, guk denok gehien desio, espero eta amesten genuen konponbidea txertoa zela. Erdia egia, erdia gezur, osasun agintariak deskantsurik gabe erraten ari dira milioika erosi dituztela eta aurten denok txertatuak izanen

«URTEROKO ESKAINTZAK ZABALTZEKO ASMOA DUGU»

bazterten dugun eta eguneroko arruntera itzuli.

Arkupeak elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordea, ekonomia eta bertze ataletako arduradunak, bulegoko administraria, herrietako delegatuak, han eta hemen beti esku bat luzatzeko prest daudenak... hainbat ustekabe, arazo eta atsekaberen erdian aurkitu ziren 2020an. Denon artean, atsedetik gabe eta betiko mimoakin, iazko urterako zituen helburu gehienak hankaz goiti gelditu ziren. Hara eta hona antolatuak zeuden hainbertze txango, bidaia eta egonaldi (martxoren erdia arteko hiru izan ezik) bertan behera utzi behar izan ziren.

Dena den, daukagun egoera kezkarriak, nahiz eta batzuk harritu eta nirekin bat ez etorri (barkatu ausardia), baditu alderdi probetxugarriak ere. Edozein egoera kamutsek bezala, Covid-19ak ere ekarri dizkigu irakaspenak. Hiru aipatuko ditut: batetik, mundu osoa gure aginduetara eta gure zangopean zegoela pentsatzen bagenuen, harropuzkeria apaltzeko masailekoa ez zaigu gaizki etorri; bertzetik, argi eta garbi erakutsi digu zein afera diren garrantzitsuak eta zein tontakeriak; eta azkenik, harreman txikien balio izugarria ez dugu atzenduko.

Bukatze aldera, irakurleei beraien eta inguruko osasuna zaintzeko mezua bidali eta elkarteko kideei urteroko eskaintzak zabaltzeko asmoa dugula aipatu nahiko nieke. Ea lortzen dugun!

Euskara ikasi eta praktikatzeko izen ematea zabalik

Euskara maila egiaztatzen duten tituluak prestatzeko eta hobetzeko aukera ematen dute IKAK eta Solaslagunak

MARGA ERDOZAIN

Herriko euskaltegiari eta solaslaguna egitasmoari esker, herriko eta ingurukoek euskara ikasteko eta praktikatzeko aukera izanen dute. Batetik, IKA euskaltegiak ikasturtearen 2. matrikulazio epea otsailaren 12ra arte zabalik du. Dagoeneko martxa eta aurrez aurreko jarduera duten taldeetan izena ematen ahal da: A1, B2 eta C1 edo EGA tituluak prestatzeko ikastaroa. Informazioa eta argibideak 948 45 15 55 telefonoan edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzita jasotzen

ahal dira. Bertzetik, Solaslaguna mintzapraktika programan izena emateko epea ere berriz zabaldu dute. Parte-hartzaileak astean ordu batez 4-5 pertsonekin elkartu eta euskaraz solas egiteko aukera izanen du, konfiantza eta giro onean. Bidelagun gisa (euskaraz ongi solas egiten duten pertsonak) edo Bidelari gisa (euskaraz komunikatzeko oinarritzko gaitasuna dutenak) parte hartu ahal izanen da. Argibideak jasotzeko 610 92 06 73 telefonora deitu edo solaslaguna@topagunea.eus helbidera idatzita behar da.

Kontsumitzaileen bulegoa irekita hainbat egunez

M. ERDOZAIN

Gurean eta dohainik den kontsumitzaileentzako zerbitzuak urteko lehenbiziko hiruhilekoan lau egunez herritarrei arreta ematen diela jakinarazi dute. Honakoak dira bulegoa irekitzea aurreikusituen egunak: heldu den

ortziralea, urtarrilaren 29a, otsailaren 5a eta 19a eta martxoaren 5a.

Erabiltzaileek, bertaratu aitzinetik, hitzordua eskatzeko Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatera (948 45 17 46 telefonora) deitu ahal izanen dute.



Herriko Etxean eman zioten 3.700 euroko txekia elkarteari. ARTXIBOKOA

3.700 euro eman dizkio herriak Anela elkarteari

MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko Udalak 3.700 euro eman dizkio Anela Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkarteari. Hainbat hilabetetan herriko kolektibo aunitzek gurean antolatutako hamaika jardueratan bildutako dirua da, hala nola, Doneztebeko Udalak, Doneztebe Futbol Taldeak, Erreka Kirol Elkarteak, Erreka Guraso Elkarteak, I. Martxa Nordikoaren antolatzaileak.

«Urte bitxia izan da, eta Covid-19aren ondorioz, hainbat ekitaldi egiterik ez da izan, baina horrek ez du eragotzi oraindik ere diru gehiago biltzea. ELA

eritasun larri honi herrian ikusgarritasuna ematea ere lortu dugu», aipatu du Xanti Uterga Doneztebeko alkateak eta aldi berean, eskerrak eman dizkie ekimenean parte hartu duten elkartei. Tantaka-tantaka, aleka-aleka elkartasun pilotuta 3.700 euroko ekarpena egitea lortu da.

Anela elkartetik, Alberto Armendariz Txapelak eskerrak eman ditu egindako ekarpenagatik. «Oso garrantzitsua da guretzat, edozein ekarpenek batzen baitu».

Doneztebeko Udalak, hainbat elkarterekin elkarlanean, duela urte batzuk erabaki zuen hainbat jardueratan biltzen ahal duen guztia dohaintzan ematea guztien onerako lan egiten duten elkartei. Oraingoz, kanpainak egin dira Sahararen alde, Saray, Adano, Mps eta Anelaren alde.

JARDUERETAN JASOTAKO DOHANTZAN EMAN DUTE

Udalak kontribuzio-tasa berrezarri du

Herriko Etxeak, Nafarroako Gobernuko legegia betez, aurtengo tasak abenduko ezohiko bilkuran onartu zituen. Ondorioz, hiri-kontribuziorako eta landa-kontribuziorako tasa bakarra % 0,25ean ezarri du (aitzineko urteetan %0,21ean zegoen).



BIDASOA

ascensores

www.ascensoresbidasoa.com
info@ascensoresbidasoa.com



IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

- Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.
- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.



IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53 | **ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49

MALERREKA

Donamariako Udala Helpbidea proiektua lantzen ari da

Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko herritarrentzako bilera informatiboa egingen dute

TTIPI-TTAPA

Larrialdi kasuetan medikuak, suhiltzaileak eta zerbitzu publikoak baserrietara ahalik eta lasterren ailegatzeko baliagarria den Helpbidea proiektua lantzen ari da Donamariako Udala. Jakinarazi dutenez, laster herriko baserri eta bor-

detan identifikazio plakak paratzen hasiko dira eta ondotik herriko bidegurutzeetan panelak jarriko dituzte. Jakinarazi dutenez, herritarrei proiektuaren berri emateko bilera bat egingen dute eta horri buruzko informazioa sarri ailegatuko zaie.

Donamariako uraren inbentarioa egiten ari dira gero hobetze lanak egiteko

TTIPI-TTAPA

Gobernutik jasotako dirulaguntza bati esker, udala, kanpoko enpresa batekin, herriko ur sarea eta kontagailuak aztertzen eta dauden deposituen informazioa biltzen ari da. Dagoeneko datuak bildu eta inbentarioa osatu dute (plano

batean ur horniduraren bideak, deposituak eta kontagailuak bildu eta digitalizatu dute). Hori egiterakoan, kontagailu batzuk gaizki daudela eta bertze batzuek ez dutela egiten ikusi dute. Orain herria dauden beharrak aztertu eta hobetzeko plan bat egin nahi dute.



NATALIA REKARTE

Ariketak egiteko makinak Donamarian

Herriko parkean ariketa fisikoa egiteko sei makina paratu ditu Donamariako Udalak. Horri esker, hemendik aitzinera herritar zein bisitariak lagunartean eta naturarekin harreman estuan, ariketa fisikoa egiteko aukera izanen dute. Makina bakoitzak gorputz atal bat mugiarazteko modua ematen du.



JAIONE ZABALO

Kirola egiteko aukera Ezkurran ere

Aire zabalean gimnasia egiteko tresnak paratu dituzte Ezkurran ere. Horrela, «paseoan ibiltzen direnek bestelako ariketak egin ahal izatea» lortu nahi izan dute eta, bide batez, «herritarren bizitza bio-osasungarria bultzatu». Urtea osasuntsu hasi nahi duenak badu aukera!



PATXI MARIEZKURRENA

Inauteriei keinu egin diete Eratsunen

Urtarrilaren 16an eta 17an izatekoak ziren Eratsungo inauteriak. Aurten, ordea, birusak ospakizunak galarazi ditu eta ez dute besta egiterik izan. Dena den, herritarrek egun horietan aurreko urteetako oroitzeko asmoz, herriko etxe batzuk apaindu zituzten, kolorezko oihalak eta globoak paratuz.

 inelsa
ZENER[®]
ascensores
igogailuak

Igogailuen
instalazioak.

Multimarka
mantentze-lanak
eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com



Irache Tanatorioak, betitik zurekin

Gure zerbitzuak zuen beharretara egokitzen dira eta tanatorioetan ez ezik, etxeetan ere egiten ditugu. Momentu berezi horietan hilkutxa aukeratzen, egunkarietan eskelak eta TTPI-TTAPA aldizkarian oroigarria jartzen lagunduko dizugu azken agurra irudikatzen duzuen bezalakoak izan dadin.

GURE HISTORIA

1976an hileta zerbitzuetan tradizio luzea zuten lau familia batu ginen: Ardaiz, Azkona, Ortigosa eta Unzué; eta Irache Tanatorio taldea sortu genuen. Urte horretako urriaren 30ean zabaldu genuen Nafarroako lehen tanatorioa.

HERRITARREKIKO KONPROMISOA

Hasieratik Nafarroako biztanleriarekiko genuen konpromisoa erakutsi genuen eta Nafarroako hainbat herritan gure zerbitzua eskaintzen hasi ginen. Gaur egun 60 beilatoki eta tanatorio inguru ditugu eta 80 bat langile.

ESKUALDEAN AITZINDARIAK

Irache Tanatorio taldeak 2002an ireki genuen Elizondoko tanatorioa, eta lehenak izan ginen etxeetan hileta zer-

bitzua eskaintzen. Era berean, zerbitzu hau eskaintzen lehenak izan ginen Lesakan, Beran, Donezteben eta Leitza. Urte hauetan, hildako pertsonaren familiaren eta lagun ondoan egon gara, zeregin honek eskatzen duen errespetu eta profesionaltasun guztiarekin.

GURE TALDEA

Bidasoa eskualdean Fernando, Andoni eta Juan aritzen dira lanean, eta Leitzaaldean, Jose Ignacio, Blanca, Eduardo eta Izaskun, denek ere Irache Tanatorio talde guztiaren sostengua dutelarik. Jarrera isil eta diskretu batetik, familia bakoitzak nahi duen agurra prestatzen, senide eta lagunak hartzeko espazio goxoa sortzen eta heriotza batek eskatzen duen dokumentazio guztia kudeatzen laguntzeko prest gaude.

ZUK NAHI DUZUN AGURRA

Agur zibil edo erlijiosoak eskaintzen ditugu, nahi duzun agurra emateko aukera izan dezazun. Edozein agur ekitaldi aitzinera eraman ahal izateko beharrezkoak diren giza eta teknika baliabideak jartzen ditugu zure eskura. Zentzu horretan ere, bide-urratzaile gara.

ZERBITZUAK

- Hileta-zerbitzu integrala eta pertsonalizatua.
- Hileta-produktuen aukera zabalak.
- Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.
- Gipuzkoan jarduteko lizentzia.
- Laguntza psikologikoa.
- Tanato-estetika.
- Kontserbazio-tekniketan espezializatutako profesionalak.
- Aitzineko salmenta.
- Era guztietako lan espezializatuak egiten ditugu hilerrietan.
- Hilberria etxeetan artatzeko aukera.
- Aseguru guztiekin lan egiten dugu: 24 ordu, 365 egun.

ETXEETAKO ZERBITZUA
Lekualdatzeak Iruñeko, Donostiako eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

Eskola berrian ikasleak gogotik ari dira lanean

NILSA enpresako bi begiralek ur tratamenduari buruzko tailerrak eman zituzten eta udaberrian tailerrekin segituko dute

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 11n udaletzeko eraikina utzi eta eskola berrira lekualdatu ziren ikasle eta irakasleak.

Inaugurazio ekitaldian eskola zaharra utzi eta berrira joateko, Arantza Diez zuzendariaren solasak eta Iker Gorosterrazu bertsolariaren bertsoak izan zituzten lagun: *Eskaileretan goiti ta behiti geroz eta haur gehiago gelan aulkian jarrita baino ganbaran xutik nahiago tristorak poza negarrak irri herriko aunitzen haurtzaro ilzan zarena agur dezagun sentitzetik haratago bizitakoa deskribatzeko ikasgairikan ez dago. Jende aunitzen lana eskertuz gatoz gaur zure ondora irudikatzen pasa ondotik urte luzeen denbora*

bizipen goxo aunitzen txoko izan dadila gerora edonor kontent etortzen bada eta atera gustora Pulunpa eskola denok amesten dugun hori izango da!

Uraren erabilera eta kontserbazioa

Geroztik, ikasle eta irakasleek buru-belarri ekin diote lanari eta lehenbiziko bisita izan dute. Izan ere, urtarrileko azken aurreko astean NILSA enpresako bi begirale Haur Hezkuntzatik hasita Lehen Hezkuntzako seigarren mailara artekoekin txandaka ibili ziren, ur tratamenduari buruzko tailerrak ematen. Udaberrian erreka ura aztertzen irakasteko saioa izanen dute eta horrekin guztiarekin uraren erabilera eta kontserbazioa landu nahi dute.



UTZITAKOIA

20 basurdetik goiti hil dituzte

Basurde kuadrilla bota dute denboraldi honetan herriko ehiztariak. Dagoeneko 20tik goiti dira hil dituztenak. Asteburuz asteburuz punteria zorrozten ari dira eta, beraz, basurdeek ez dute alde egitea lortzen. Ea denboraldia zenbatekin akitzen duten!



UTZITAKOIA

Bi herritar Santa Barbarako igoeran

Manttalek antolaturiko Santa Barbara igoeran parte hartu dute herriko bi kirolarik. Aurtengoan, Ibai Berregik Eneko Herrerekin egin zuen eta Javier Seinek Igor Agestakin. Urteroko luntxa eman ez bazuten ere, euren esfortzua saritzeko bertako produktu sorta bat jaso zuten.



UTZITAKOIA

Maika Ariztegi lokotx biltzen bigarren

Urtea indartsu hasi du Maika Ariztegi. Ilbeltzaren 10ean Erriberabeitian Sorondoren aurka bigarren izan zen eta hurrengo aste-buruan, berriz, Euskal Herriko bi txapelketa jokatu zituen: lokotx eta ingude txapelketa. Lokotx biltzen azpitzapeldun izan zen (Ainhoa Iraizozek irabazi zuen) eta ingude txapelketan laugarren.


Joare soinuek girotu dute Errege bezpera

Urteroko joare soinuek ez dute hutsik egin errege bezperan. Gazteak herrian barna ibili ziren Aurtitzen eta ilunabarrean Iturengo zein Aurtizko gaztetxo eta helduek hartu zuten lekukoa. Errege bezperan inauteriak ailegatzeko falta diren egunak kon-

tatzen hasi ohi dira herritarrek. Aurtzen, ordea, pandemiak eragindako egoeratik udal-ek bertan behera uztea erabaki dute. Hortaz, oraingo honetan herritarrek urtebete esperatu beharko dute horren gustuko dituzten inauterietarako.

Erosketak dendan jasotzeko aukera ematen du Toptopa Plataformak

Denok Bat Federazioak sustatutako plataformako hainbat dendatan merkealdian daude



Toptopa.shop webguneko irudi bat.

TTIPI-TTAPA

Denok Bat Federazioak, Cerdana Garalur elkartearekin lankidetzan eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Nafarroako top produktuak online saltzeko Toptopa plataforma martxan jarri zuenetik ia bi hilabetera, zerbitzua zabaltzen segitzen dute. Orain erosketak dendan jasotzeko aukera ere badute bezeroek, bidalketa gastuak ordaindu gabe.

Elizondoko zortzi, Irurritako bat, Doneztebeko zortzi, Berako hamar, Lesakako zazpi, Leitzako hiru, Altsasuko hamar, Etxarri-Aranazko bi eta Arrotxapeako hiru denda dira online salmentarako plataforman, 52 guztira. Erosketak online egiteko aukera ematen diete bezeroei, eta behin erosketak eginda, bezeroek etxean jaso ditzakete erosketak, dendako 5,78 euroko bidalketa gastuak ordainduta. Ez hori bakarrik. Orain erosketak dendan ere jaso ditzakete, inolako bidalketa gasturik ordaindu gabe.

Merkealdiak

Bertzalde, aipatu behar da, ilbeltzaren bigarren asteaz goerotik merkealdian daudela Toptopako hainbat dendatan. Gure dendetan, tokikoak ditugun horietan, norberari hobekien heldu zaion moduan erosketak egin eta gainera deskontuak probesteko aukera bikaina izan daiteke! Eta tokiko denda, zerbitzu eta ekoizleek ere ateak zabalik dituzte proiektuarekin bat egin nahi izanez gero.

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!



 <p>%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigarutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	 <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	 <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	 <p>%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelarendenda.com</p>
 <p>%5 DESKONTUA kosmetikan</p> <p>%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora.</p> <p>Amezitia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	 <p>%10 DESKONTUA</p> <p>Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	 <p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	 <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>
 <p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan</p> <p>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Amezitia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	 <p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelarendenda.com</p>	 <p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuari</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	 <p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>



Datorren astean Miren Fagoagaren erakusketa ikusgai jarriko dute. TOLOSALDEKO ATARIA

Inauterien faltan hainbat kultur ekitaldi aukeran

Ekitaldien artean, otsailaren 1etik 7ra Miren Fagoaga herritarraren doluari buruzko erakusketa ikusgai izanen da

JUAN MARI BARRIOLA

Pesta batzordeak eta Udalak jakinarazi dutenez, aurtan ezinezkoa izan da inauteriak ospatzea, pandemiak eragindako legeen arabera ezin direlako bermatu normaltasunez, hau da, «jende pilaketarik gabeko desfile, kalejira, eske, herri bazkari eta gisakorik antolatzea ez baita posible». Baina hori ez da etxean gelditzeko aitzakia izan eta horren ordez, udalak eta pesta batzordeak elkarlanean kultur ekimenak jarri dituzte aukeran eta horrekin batera, inauteri garaian aretora moztortuta azaltzeko eta etxe balkoiak apaintzeko deia egin dute.

'Bideak' dokumentala

Azken egunotako kontzertu, bakarrizketa eta antzerkiaren ondotik, datozen egunetan ekitaldi gehiago izanen dira. Larunbatean, ilbeltzaren 30ean, Aritz Ganboa artzainaren erronkari buruzko *Bideak* dokumentala ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan, 19:00etan. Sarrera, bost eurotan, Maimur edo Astiz liburu-dendetan eskura daiteke.

Miren Fagoagaren erakusketa

Otsailaren 1etik 7ra, berriz, Miren Fagoaga herritarraren *Dolua barne hutsaren kolorea irudietan* erakusketa ikusgai izanen da Herri Aretoan, 18:30etik 20:00etara. Sarrera doan izanen da eta edukiera bete arte sartzeko aukera izanen da.

Hileta zibilak hizpide

Otsailaren 4an, hileta zibilen inguruko azalpenak emanen ditu Iñaki Olaizola Eizagirrek. *Nolako agurra nahi duzu? Nola antola daiteke?* Galdera horiei erantzuten saiatuko da 18:30ean Herri Aretoan eginen den hitzaldian. Bestalde, hitzordu berean udalak gai honen harira egindako gida aurkeztuko dute.

Saharako egoerari begira

Otsailaren 13an, Saharako egoeraz mahai-ingurua antolatu dute eta *Haizearen egia* dokumentala ikusgai izanen da, Herri Aretoan, 18:00etan. Sarrerak otsailaren 5etik aurrera Astiz eta Maimur liburu-dendetan doan eskuratu ahal izanen dira.

Atekabeltz Herrigunean ere hainbat ekitaldi datozen asteetan

TTIPI-TTAPA

Udalak eta pesta batzordeak elkarlanean prestatu dituzten kultur ekitaldiez gain, Atekabeltz Herrigunean ere izanen dira bestelako hitzorduak.

Ostegun honetan, esaterako, ilbeltzaren 28an, Burgosko auziaren 50. urteurrena dela eta, Sortuk hitzaldia antolatu du, 19:00etan. Eneko Compains izanen da hizlari.

Otsailaren 18an, bestalde, Osasunaz hausnartzen lantaldeak antolatuta, *Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure interdependentziak arakutzen*

hitzaldia emanen du Goiuri Alberdi Aresti nutrizioan eta dietetikan doktorea denak. 19:00etan hasiko da eta gisa honetara itxiko dute abenduan abiatutako *Osasunaz beste begirada bat* formakuntza zikloa. Tarte horretan, denetarikoa gaiak landu dituzte: osasuna zaintzeko aholkuak, kutsadura elektromagnetikoa, txerto emozionala...

Otsailaren 27an, berriz, Murgogoren kontzertua antolatu du Atekabeltz Herriguneak. *Lapur(ari)ketak* emanaldia emanen du 19:00etan.

Herriko plazan hainbat hobekuntza eginen dituzte

JM BARRIOLA

Udaletxeko teilatuko berrizte-lanak amaitu ondotik, orain, herriko plazan beste hainbat lan egiteari ekin dio udalak. Pilotalekuko hormigoizko zorua, inguruko koska eta paretak eta frontiseko burdinazko sareak berrituko dituzte. Guz-

tira 78.424 euroko aurrekontua dute eta 50.000 euro landa garapeneko programatik jasoko dituzte.

Lanak urtarilaren 11n hasi zituzten eta udaletik iragarri dutenez, bi bat hilabete irauten dute. Tarte horretan, arretaz ibiltzea eskatu dute.



UTZITAKOIA

Errege Magoek ez dute hutsik egin

Urtero bezala, zintzarri hotsei segika ailegatu ziren hiru Errege Magoak etxeetara. Indarrean dauden aginduak eta segurtasun neurriak betez, modu berezian egin bazuten ere, errege egun bezperako protagonistek ez zuten hutsik egin.

Urte berriarekin martxan da liburutegi ibiltaria

Otsailaren 10ean irakurle taldea bilduko da *Larrepetit* liburuaz mintzatzeko

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako oporrak bukatuta, liburutegiak ilbeltzaren 6an ireki zituen ateak eta astelehenero, hilak 25, opor egunaren ondotik, ohiko martxari heldu dio.

Aste honetan, liburutegi ibiltariak hasiko du urte berriko ibilbidea. Hain zuzen, aste honetan eginak dituzte hitzorduak Areson, Goizuetan eta Aranon. Asteazkenean, ilbeltzaren 27an, 14:15etik 15:00etara Areson egitekoa zuen liburutegi ibilaldiak geldialdia eta ostegunean, ilbeltzaren 28an, Goizueta eta Aranoren txanda izanen da: Goizuetan 14:30etik 15:30era eta Aranon egun berean 16:00etatik 16:30era.

Aurretik liburu edo DVDren bat eskatu nahi izanez gero, Whatsappez 617 38 58 82 zen-



Irakurle taldearen artxiboko irudi bat.

bakira edo *biblilei@navarra.es* helbidera idatzita egiten ahal izanen da eskaera.

Otsailaren irakurle taldea

Otsailaren 10ean, irakurle taldeak hitzordua eginga dute, 18:00etan liburutegian. Pello Lizarralde idazle zumarragarriak 2002an argitaratutako *Larrepetit* liburua izanen dute hizpide. Espetxetik ihesean doazen bi lagunak egiten dituzten irudiak eta haiei lagunduko dien hirugarren batenak kontatzen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal presoak etxeratzeko eskaria

Elurrari eta hotzari aurre eginez, 150 bat lagun elkartu ziren urtarrilaren 9an herriko plazan, Sarek deitutako presoan aldeko elkarretaratzean. *Bidea eginez, euskal presoak etxera* aldarrikatu zuten plazan bildu ziren haur, gazte nahiz helduek.



UTZITAKOAK

Bazterrak txuri-txuri

Aspaldi hartu gabeko itxurarekin ikusi ditugu ilbeltzean herrigunea, baserri auzoak eta mendiak, elurra gogotik bota ondotik txuri-txuri. Kontuak kontu, urtea hasi orduko, gehixeago edo gutxiago, gozamenerako tarte ederra eman du elurrak.



Gaizka Aranguren –Labrit Ondarea– eta Mikel Zabaleta –alkatea– aurkezpenean

'Eta plaza larre bihurtu zen' dokumentalak harrera ona izan du

JUAN MARI BARRIOLA

Ilbeltzaren 2an *Eta plaza larre bihurtu zen* dokumentala aurkeztu zuten Herri Aretoan bildu ziren 120 lagunak aurrean. Lan hori 2020an egindako grabaketekin osatu du Labrit Ondarea ekoiztetxeak. Pandemiak eragindako etxealdian, bizitza guztiz baldintzatua izan

zen eta kaleak hustu egin ziren, herriko plazan belarra ugartzeraino. Hortik datorkio izenburua. Egoera berezi hartatik sortutako ekimen berritzaileak eta orduko hainbat testigantza eta irudi ageri dira lanean. Udaletik adierazi dutenez, egun hartan ikusterikizan ez zutenek aurrerago izanen dute aukera.

Udal eraikinei buruzko batzarra ostiral honetan

Bilkura 19:00etan udaletxeko ganbaran egingen dute eta herritarrek proposamenak egiteko aukera izanen dute

TTIPI-TTAPA

Udaleko etxebizitza batzordeak udal eraikinei buruzko plan-gintza egin du eta behin lan hori osatuta, orain herritarrei aurkeztu nahi die, ospitalearekin, medikuaren kontsulta zaharrarekin eta beste udal eraikinekin zer egiteko asmoa

duen jakinarazteko. Helburu horrekin batzar irekia deitu du ostiral honetarako, urtarrilaren 29rako. 19:00etan udaletxeko ganbaran bilduko dira eta udaletik adierazi dutenez, herritarrek beraien proposamenak egin eta iritzia emateko aukera izanen dute.

Jon Zabaleta 'El Conquistador' saioan parte hartzen ari da

TTIPI-TTAPA

Hasi da *El Conquistador del fin del mundo* saioaren XVII. edizioa eta parte-hartzaileen artean dago Jon Zabaleta *Beko*. 30 urteko suhiltzaileak bere burua «aurrera egiteko moduan» ikusten du eta «nafarren batek irabazteko ordua» dela uste du.



Harrera beroa egin diete hiru errege magoei

Kabalgatarik ez izanagatik, urtarrilaren 5ean eskolako frontoian harrera beroa egin zieten Errege Magoei ume eta gurasoek. Segurtasun neurriak errespetatuz, umeek pozik hartu zituzten opariak.



FELIX LOIARTE

Liburutegi ibiltaria ostegun honetan etorriko da

Liburutegi ibiltaria ostegunean, hilaren 28an, etorriko da, 14:30etik 15:30era. Aurretik liburu edo DVDren bat nahi duenak Whatsappez 617 38 58 82ra edo bibililei@navarra.es helbidera idatziz eska ditzake.



ARTXIBOKO IRUDIA



Urtarrilaren 17ko partidaren Arozena-Zelarain eta Zabaleta-Eskudero. IGOR ELIZEGI

Finalerako txartelaren bila Arozena-Zelarain eta Zabaleta-Eskudero bikoteak

TTIPI-TTAPA

Hiru bikotek eman dute izena Nafarroako bigarren mailako eskuz binakako emakumezkoen txapelketan, eta horietatik bi herritarrek dira: Irati Arozena eta Mayi Zelarain batetik eta Ainhoa Zabaleta eta Maria Eskudero bestetik. Urtarrilaren 17an herriko frontoian jokatu zuten txapelketako aurreneko lehia eta Zabaleta eta Eskudero izan ziren irabazle (6-22), Arozena eta Zelarain mendean hartuta.

Txapelketako bigarren partida joan den asteburuan jokatzea zuten Arozena eta

Zelarainek, Altsasuko Alonso eta Bergararen aurka. Igande honetan, berriz, urtarrilaren 31n, Zabaleta eta Eskudero altsasuarren aurkako partida jokatu dute, eta Arozena eta Zelarainek atsedean eguna izanen dute.

Hiru bikoteen artean lehena sailkatzen denak zuzenean lortuko du finalerako txartela eta bigarren eta hirugarren sailkatutako bikoteek otsailaren 14an finalerdia jokatu dute. Finalerdietan irabazten duenak lortuko du otsailaren 20an Iruñeko Labriten egingen den finalerako beste txartela.



UTZITAKOIA

Presoei elkartasuna adieraziz

Eguraldi txarra ez zen oztopo izan urtarrilaren 9an kalera atera eta presoei elkartasuna adierazteko. Sarek deitutako deialdiarekin bat eginez, hainbat eta hainbat izan ziren preso eta iheslariak etxeratze eskatuz plazara atera ziren herritarrek.

2019 eta 2020 urtetako laburpena egin du udalak

Egindako lanak, egiterik izan ez dituenak eta esku artean dituen proiektuak azaldu ditu etxeetara bidalitako gutunean

TTIPI-TTAPA

Urte bukaeran egin ohi den batzarra deitzerik izan ez zuten ez, etxeetara banatutako gutun batean bildu du udalak pasa den urtean egindako langintzen laburpena.

Eskoletzeko obra

2019an udal berria martxan hasi zenean, bi proiektu nagusi zeuden mahai gainean: Eskoletzeko eta gaineko bi etxebizitzetako leihoak aldatzea eta etxebizitzetako bat egokitzea erabilera anitzeko gune bihurtzeko. Obra hauek aurrera eramateko dirulaguntzak hiru tokitan eskatuta zituen lehengo udalak eta onartuta zeuden. Eskoletzeko leihoak aldatzeko lanak bukatu berri dituzte, baina erabilera anitzeko gunearen proiektua ez da aurrera atera.

Udalak azaldu du aurkeztutako proiektua ez zela bideragarria: «proiektua bere gain hartu nahi zuen enpresarik ez zen aurkeztu. Hori ikusita, kontratista bat ekarri genuen proiektua ikustera eta hainbat akats zituela ohartu ginen. Gainera, aurrekontua eta obra ez zetozeela bat aipatu zuen». Hala, enpresen faltan eta aurrekontu horretan esleitzea ezinezkoa zela ikusita, uko egin zioten dirulaguntzari.

Hirigintza Elkartea

Udalak bere garaian ehuneko ehunean udalaren jabetzakoa den hirigintza elkartearen sortu zuen Eluserdi industriagunea gauzatzeko. Horren garapenerako Espainiako Industria Ministerioak mailegubatemana zuen. Poligonoaren garapenak ez du aurreikusitako bidea

izan eta horrek mailegua ordaintzerako orduan zailtasunak eragin ditu. 2018, 2019 eta 2020ko kuotaren ordainketetan udalak parte-hartze zuzena izan du eta 2021eko azken kuota ordaintzerako zailtasunak izatea aurreikusi du.

Zerbitzu anitzetako langilea

Egungo herri langilearen egoera kontuan izanik eta etorkizunera begira suerta daitezkeen beharrei erantzuteko, udalak lan poltsa osatu nahi du datozen hilabeteetan.

Baso

Mendiko itxituren zati bat auzolanean egin zen eta falta zen zatia Imanol Mendi-lanak enpresak gauzatu zuen. Aurtengo baso lanetarako dirulaguntza eskatuta dute mendi garbiketarako egin, itxiturak konpondu eta landaketak egiteko.

Egur loteek, bestalde, buruhausteak sortu dituzte. Aurten 2019ko egur loteak banatu dituzte, lizitazioan banaketa egiteko enpresarik ez zelako agertu. Mendiko zuhaitzen egoera ikusita, datozen urteetarako lote eskaintza zintzilik gelditu da. Horren ordez, udalak baso komunalean eta bere jabetzako lurretan eroritako

zuhaitzen banaketarako arauak finkatu ditu. Baldintza orokorrak ezagutu eta izena emateko udaletxera joan daiteke. 2021eko udaberriko zozketa egitea espero du, jendeak egurrak ekar ditzan.

Hirigintza plana

Hirigintza plana udalak esku artean duen gaietako bat da. Bi parte-hartze saio egin ondoren, teknikoaren lana aurreratu dute. Hurrengo pausoko udalak batzarrean onartu beharrekoak izango dira. Hala ere, tramitazio osoan herritarren eskura izango dira dokumentuak eta legeak ezarritako kasuetan alegazioak aurkezteko aukera izango da.

Internet zerbitzua

Udala, WIFI FOR EU izeneko dirulaguntza baliatuta, herri osoan hamar wifi puntu libre eskaini eta Internet sistema berritzeko proiektua lantzen ari da. Hala, orain arte eskaintzen zuten Internet zerbitzua bertan behera geldituko da 2021ean. Dena den, konexio arazo handiagoak izan ditzaketan etxebizitzetako zerbitzua mantentzeko Izarkom enpresarekin elkarrekin ari da udala.



A. NIETO

Elurte ederra urte hasieran

Aurreikuspenak bete eta berez ere ederrak diren bazterrek soineko zuriz jantzita agertu ziren urteko lehenbiziko astean. Mendi bueltak eginez, elurretako panpinak osatuz... Haur, gazte eta helduek gozatu ederra hartu zuten elurrarekin.

Aurten ez da Inauteririk izango

Gauzak ongi bidean, urtarriko azken egunetan inauterigiroa izango zen nagusi herrian. Baina egungo egoerak ez du aukerarik emango. Guraso elkarteak eta Lagunarteak ospakizunak bertan behera uztea erabaki dute. Eskolako haurrak izango dira, segurtasun arauak betez, urtarriaren 29an kalejira batekin inauteriei keinu txikia egingo dietenak. Dena den, festaren seinalea egiteko asmotan, Euskararen Egunerako egin zen bezalaxe, herritarren bideoak bilduta bideo bat osatzeko asmoa dute.

Liburutegi ibiltaria asteazken honetan etorriko da

Liburutegi ibiltariak urtarriaren 27an, asteazken honetan, egingo du urteko lehenbiziko bisita herrira. Egundik 14:15etik 15:00etara udal etxean izango dute nahi duten herritarrek liburu trukea egiteko aukera.

Aurrekoetan bezala, aurretik liburu edo DVDren bat eskatu nahi dutenek bi bide izango dituzte horretarako: 617 38 58 82 telefonora Whatsappez mezua bidal dezakete edo bestela, biblibilei@navarra.es helbidera idatzi beharko dute.

Birusak ostalaritzan izandako ondorioa aztertuko dute

Ostato eta jatetxeetan pandemiak izan duen eragina eta Nafarroako Gobernuaren laguntza aztertzeko inkesta egin dute

TTIPI-TTAPA

Covid-19agatik Nafarroako Gobernuak agindutako ostato eta jatetxeen hesteak eragindako ondorioa aztertzearabaki du Baztango Udalak. Horretarako, jarduera guztietarat inkesta bat igorri dute. Gisa bertsuan, inkestan ostato eta jatetxeak laguntzeko Nafarroako Gobernuak emandako 20 milioi euroen eragina neurtuko dute.

Laguntzak «proportzionalak»

Azken osoko bilkuran Geroa Baik ostato eta jatetxe guztiei

400 euroko laguntza emateko proposamena aurkeztu zuen, baina Baztango Udal taldea osatzen duten gehiengoak—EH Bilduk eta Ezkerrak— ezetz erran zuen, «lehenbizi Nafarroako Gobernuak emandako laguntzak neurtu behar direla» argudiatuz eta «laguntzak ematekotan proportzionalak izan behar dutela eta denei laguntza bera ematea ez dela zuzena» iritzita.

Horrela bada, erabaki horri erantzuteko, egoera zein den aztertuko dute, «ondotik, egoiak diren pausoak emateko».

Aniz aztergai duen lanaren aurkezpena ortziralean

Maitane Maritorea Azkaratek herriari buruz egindako *Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zeta-be, bat bertzearen behartu gabe* lana aurkeztuko du larunbatean, ilbeltzaren 29an, Elizondon. Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua 19:00etan.

Solaslaguna programan izen-ematea zabalik

Euskara praktikatu nahi dutenek eta praktikatzen laguntzeko prest daudenek, urtarrian Solaslaguna egitasmoan izena eman dezakete. Solaslaguna@topagunea.eus helbidera idatziz edo 610 92 06 73 telefonora deitu eta jakinaraztea aski izanen dute.



Elizondoko alkateak eta kargodunek hilaren 17an hartu zuten kargua. ONDIKOL

Irurita eta Arizkungo alkateak aukeratu gabe daude oraindik

TTIPI-TTAPA

Abenduko hirugarren igandean alkateak izendatzeko batzarrak egiten dituzte Baztango herri guztietan. 15 herrietatik 11 tan hautatu zituzten alkateak: Berroetan, Arraiozen eta Gartzainen Carlos Garaikoetxeak, Joxelu Retegik eta Fernando Arraztoak segituko dute; eta Elbeten Imanol Juanikotena, Erratzun Kaiet Itoizek, Oronoz-Mugairin Jorge Oteizak, Zigan Joxean Etxeberriak, Almandozen Pello Sarrateak, Azpilkue-tan Aitor Iturraldek, Anizen Kristina Fernandezek eta Le-karozen Ernesto Pratek hartu zuten kargua.

Elizondon, Arizkun, Iruritan eta Amaiurren karguak hutsik gelditu ziren. Ordenantzetan markatutakoa betez, lau herri horiek bigarren aukera bat izan zuten Errege Eguneko batzarrean. Egun

horretan hautatu zuten Amaiurko alkate, Ixabel Alemanek kargua hartzeko borondatea agertuta.

Gerora, Elizondon Aitor Bazterrikak bere burua aurkeztu eta bera hautatu zuten alkate ilbeltzaren 16ko batzarrean.

Orain, Amaiurko eta Elizondoko alkateak hautatu ondotik, Irurita eta Arizkungo alkateak gelditzen dira hautatu gabe. Lerro hauek idazterakoan Irurita eta Arizkun ez zen inor aurkeztua eta urtarileko lehenbiziko igandeko batzarretik hilabeteko epea zuen Batzar Nagusiko batzar buruak herri horietan batzarra deitzeko. Ondotik, hautagaitzarik aurkeztuko ez balitz, ordenantzak zehazten ez duen aldia ireki beharko lukete eta prest legokeen norbait agerterakoan batzarra deitu ahal-ko litzateke.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuk
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---



Bere bizitzari loturiko bertsoak kantatuko ditu Egaña. ARITZ MUTIOZABAL

'Niretik' bertso saioa otsailaren 7an Elizondon

Andoni Egaña bertsolariak Jon Ostolaza soinu-jolearen laguntzarekin eskainiko du saioa

TTIPI-TTAPA

Andoni Egaña bertsolari ezagunak, Jon Ostolaza soinu-jolearen laguntzarekin, bere bizitzari loturiko bertso sortak kantatuko ditu otsailean Elizondon izanen den *Niretik* bertso saioan.

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako hi-

tzordua otsailaren 7an, lehen-biziko igandean, izanen da Arizkunenea kultur etxean.


Saioa 19:00etan hasiko da eta, osasun neurriak betetzeko edukiera mugatua izanen denez, sartu ahal izateko gonbidapena beharko da. Egunean bertan, 18:30etik aitzinera, jarriko dituzte eskuragarri.

Haurdun daudenendako musikoterapia ikastaroa martxoaren 12ra arte

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 12ra arte, ortzitalero haurdun daudenendako musikoterapia tailerrak ematen ari dira Elizondon. Haizea Loira irakasle dutela, 10:00etatik 11:30era Arizkunenea kultur etxean biltzen hasiak dira. Hiruhilabete honetako tailerretan, aitzinekoetan bezala, tailerrak higie-ne eta babes neurriak betetz egingen dira.

Tailer horien helburua «ongizatea hobetzea, haurraren garapenean laguntzea eta bien arteko lotura sendotzea» da



eta haurdunaldiaren bizipe-na «osotasunean eta kontzienteki» bizitzeko gakoak lantzen dituzte, «arlo fisiko, psikologiko, emozional, sozial eta espiritualari erreparatuz».



Gandeia taldea joan den azaroan Beran izan zen. ARTXIBOKOA

Gandeia taldearen emanaldia ilbeltzaren 31n Elizondon

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak sustatutako Artea eta Kultura 2021 egitasmoaren bane, Amaia Cordoba piano-joleak, Yorrick Troman bibolin-joleak, Ion Irazoki txistulariak eta Lorea Lizarreta eta Oihana Santxotena dantzariak osatutako Gandeia taldearen musika eta

dantza emanaldia izanen da ilbeltzaren 31n, heldu den igandean, Elizondon. Euskal Herriko musika aditu eta gozatzeko erritmo biziko saioa Elizondoko Arizkunenea kultur etxean ikusi ahal izanen da, 19:00etan. Gonbidapenak 18:30etik aitzinera eskuratu ahal izanen dira.

IDEAK «mehatxuekin» erantzun diela salatu dute zahar etxeko langileek

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte zahar etxeko langileek abenduan zahar etxea babes-teko egindako mobilizazio deialdian izandako «erantzun erraldoia» eskertu dute: «bizi dugun egoera zail hauetan indarberritzen gaituelako».

Babesa eskertzearekin batera, enpresaren aldetik jasandako «mehatxuak» salatu nahi izan dituzte. Langileek argitu dutenez, IDEAK erantzunean «langileok eta erabiltzaileak bizi eta salatu dugun egoera komunikatu baten bitartez desitxuratu» egin dutela adierazi dute. Gainera, enpresak Eguberrietako estra «ordaindu nahi ez» eta ilbeltzatik aitzinera «hilabetez hilabete» ordaintzeko erabakia hartu duela salatu dute. Langileek egin duten lan-hitzarmen pro-

posamenari IDEAK «ezezko borobila» eman diola eta «inongo borondaterik erakutsi gabe proposamen apalago bat egitea exijitu» dietela salatu dute. Are gehiago, oharrean jakitera eman dutenez, «urteetan salatu dugun langile kopuru kaskarrari, entzungor egin eta gainera ERTE bat aurkeztuko dutela» iragarri diete.

Horren aitzinean, «langileek zaintza eta lan baldintza duinak lortzeko borrokan» segituko dutela adierazi dute: «IDEAren jarrera horrek ez gaitu beldurtu ezta etsitzeko gogorik eman ere». Orain arteko «elkartasuna» eskertzearekin batera horren beharra azpimarratu dute: «hemendik aitzinera orain arte erakutsi diguzuen babes eta elkartasun hori inoiz baino beharrezkoago izanen dugu».

Osasunari buruzko formakuntza zikloa otsailaren 12tik 26ra

Hainbat adituk hitzaldiak emanen dituzte otsailaren 12an, 19an, 20an eta 26an Elizondon, Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Osasuna osotasunean formakuntza zikloa izanen dute otsailean Arizkunenea kultur etxeko goitiko solairuan. Segurtasun neurri guztiak betez eta edukiera mugatuz, hau da, elkar zainduz, norbera zaintzeko gakoak izanen dituzte solasgai, hainbat alorretako adituen eskutik.

Txertoaz otsailaren 12an

Ortziralean, otsailaren 12an, izanen dute lehenbiziko hitzordua, Arturo Vinuesa medikuaren eskutik. *Xertoa zu zeorre zara* goiburupuan bilduko dira, 18:00etan.

Biomedikuntzaz otsailaren 19an

Hurrengo ortziralean, hilaren 19an, ordu berean, Asier Galanek, biologia molekularrean doktorea denak, oinarri zien-

tifikoak biomedikuntzan izanen ditu solasgai.

Egungo egoera ekonomikoaz otsailaren 20an

Egungo egoeraren gakoak izanen dira larunbateko, otsailaren 20ko, aztergaiak eta Nekane Jurado ekonomialariak emanen du horien berri 11:00etan hasiko den solasaldian. Hiru solasaldiok gazte-leraz izanen dira.

5Gaz eta elektromagnetismoaz hilaren 26an

Zikloa ixteko Asier Arregi ingeniari agronomoa eta geobiologoa gonbidatu dute. 5Gari, osasunari eta elektromagnetismoari buruzko jakintzak partekatuko ditu otsailaren 26an eta, gainerako ortziraleetan bezala, 18:00etan elkartuko dira.



ONDIKOL

San Anton Egunean zozketa egin dute

Ezohikoa izan da aurtengo San Anton Eguna, baina baztandarrak egin diote keinurik. Urtero bezala, Balleko Etxeak Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxearen alde zozketa egin zuen eta honakoak izan ziren sarituak: 2.469arentzat aretzea; 2.483arentzat txerria, 4.841arentzat bi bildots; eta 4.403arentzat magra.

'Sugarren mende' liburua aurkeztuko du Asisko Urmenetak Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Baztango kultura batzordeak antolatuta, Asisko Urmenetak *Sugarren mende* lana aurkeztuko du otsailaren 5ean, lehenbiziko ortziralean, Arizkunenea kultur etxean. Bertaratzen direnek, orain arteko kondai-errez haraindi, orain 410 urte

inguruko sorgin ehizari buruzko lan historikoaren emaitza ezagutzeko aukera izanen dute. Aurkezpena bertaratu nahi dutenek gonbidapenak 18:30etik aitzinera jaso ahal izanen dituzte. Lanari buruzko xehetasunak eta informazio gehiago 8. eta 9. orrialdeetan.



IRUÑEKO UDALA

Izaskun Igoaren poesiarentzat aipamena

Izaskun Igoa zigatarraren *Lurra zango zolaren gainean* poesia lanak Iruñeko Udalak antolatutako sortzaile berrien literatura lehiaketan aipamen berezia izan du. Bere lana bertze lan sarituekin batera argitaratuko den liburuan irakurri ahal izanen da. Zorionak eta segi hausnarketak zabaltzen!

MARMOLÉS
SOULE

www.marmolésoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolésoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
VALLES DE CAJASTIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

«Pena da gazteak herriko kontuetan gehixeago ez sartzea»

JORGE OTEIZA UGARTE ORONoz-MUGAIRIKO ALKATEA

Bittor Elizagoien, Aritz Goñi eta Josu Intziarte lagun dituela, ilbeltzaz geroztik Oronoz-Mugairiko alkate da Oteiza. Orain arte herriaren alde egindako lanari alkatetzatik emanen dio segida

N. BAZTERRIKA

Alkate lagun, Erberea kuarteleko juntero eta mendi komisioko kide izan ondotik, alkatetzara egin du salto Jorge Oteizak (Oronoz-Mugairi, 1962). Ilbeltzaren 6an hartu zuen kargua eta ondoko bi urteetan «herrian sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko eta Baztango Udalarekin bitartekaritza lana egiteko» arduraren izan da. «Denen gustura ezin dela» jakitun izan arren, bere lana «ahalik eta hobekien» egiten saiatzeko gogotsu dago.

Oronoz-Mugairiko alkate zara ilbeltzaren 6az geroztik... Zein izanen dira ondoko bi urteetan zure ardurak?

Batetik, herrian sortzen diren arazoei irtenbidea ematea; eta bertzetik, Baztango Udalarekin bitartekaritza lana egitea. Bertzelako kontuak ere izaten dira, auzolanak antolatu, ordainketak kudeatu... Batzuetan ez da arazo haundirik izaten, bertzeetan sortzen dira...

Nor izanen dituzu alkate lagun?

Bittor Elizagoien, Aritz Goñi eta Josu Intziarte. Horrez gain, Mañolo Intziartek ere behar bada laguntzeko prest dagoela errana du. Bittor alkate izan zen eta Aritz azken bi urteotan lantaldean aritu da. Bera da taldeko gazteena, eta berteok adin batean gaude dagoeneko. Pena da gazteak herriko kontuetan gehixeago ez sartzea, ea lortzen dugun hurbiltzea. Lantalde horretaz gain, orain urte batzuk herrian batzorde



Inguruko babesak lagunduta hartu du alkate kargua Oteizak. UTZITAKOIA

batzuk sortu ziren: auzolanarena, hilerriarena, frontoiarena, elizarena, urarena... Alde horretatik alkatea nahiko babestua dago, bazterretik lan egiten duen jendea dagoelako. Gure aitzinetik egon direnek, Ruth Peñak eta bere lantaldeak, laguntzeko prest daudela errana digute. Denen artean eginen dugu.

Zer helburu jarri diozu zeure buruari datozen bi urteetarako?

Ez dut helburu jakirik, herria mantendu nahiko nuke. Erabiltzen ez diren bide batzuk, erdi itxita daudenak, garbitu; eta erabiltzen diren batzuk moldatu. Herri ttiki hauetan aurrekontua ttikia izaten da... Horrez gain, edozein arazo sortzen delarik, irtenbidea

agudo eta ongi ematea gustatuko litzaidake.

Epe luzeagora begira, zein dira herrian ikusten dituzun beharrak?

Bai nik baita herriak ere ikusten duen behar nagusia herriko plazan lehorpea egitea da. Herriko plaza lehorperik gabe triste da, nahikoa da euri pixka bat egitea edo denbora txartzea ezin aprobetxatu gelditzeko. Bittor Elizagoien alkate zelarik horrekin bueltaka ibili ginen, proiektua eta guzti egin zen baina krisia ailegatu zen eta gibela eman zen. Herriko etxea deitzen diotena salduz gero, diru horrekin eta Nafarroako Gobernuaren eta udalaren laguntzarekin, komun batzuk eta lehorpea egitea gustatuko litzaidake. Bi urtez

zaila izanen da, baina... Orain ez bada ea aitzinerago egiterik baden.

Herri ttikietak biztanleriak behe-ti egin du hondarreko urteetan. Nola ikusten duzu Oronoz-Mugairiren etorkizuna?

Gaurko egunean gazteek ez dute erraz. Ahal duten guzira gurasoekin bizitzen dira, eta lanean ari direnek ere ez dute erraz etxetik ateratzea. Lan aldetik, inguruan ez dago aukera aunitzirik eta Iruñera edo Donostiara jotzen dute batzuek. Horiek han berean hartzen dute zerbait, eta hori herriarendako ez da mesedegarri. Batzuk ondoko herrietan egin diren babes ofizialeko etxebizitzetara joanak ere badira. Laguntza batzuk ez badira ematen zail dago kontua. Herriaren etxe batzuk badira hutsik daudenak eta horietan ezin da gazte bat bakarrik sartu. Horiek egokitzeko Baztango Udaletik eta Nafarroako Gobernutik dirulaguntzak lortuz gero, etxe batzuetan lau bizitza egin daitezke. Berriak egin beharrean horiek egokitu eta irtenbidea ematen ahal zaie...

Baztan-Bidasoko lanbide eskolaren proiektua ere hortxe duzue...

Aurten lizitatu eta idaztea aurrekusi du Nafarroako Gobernuak...

Behar bezala egiten bada, herriak ez duela problemarik izanen uste dut. Lekua ere egokia ikusten dut... Herriendako eta bailara guztiarendako garrantzitsua izanen da. Erran dutenaren arabera, gainera, inguruan daudenak baino formakuntza ziklo gehiago eskainiko dira... Herriko lasaitasunean momentu batzuetan eragin du, autobusen-joan etorrietan erraterako, baina dena ezin da.

Bertzerik gehitu nahi duzu?

Herriari eskerrak eman nahi dizkiot niregan konfiantza izateagatik eta alkaterik gabe dauden herrietan herritarrei animatzeko deia egin nahi diet, Batzar Nagusiko erabakietan euren tokia dutelako eta alkateak izatea garrantzitsua delako.

Eneko Barberena da aurtengo (H)ilbeltza bekaren irabazlea

Bekari esker, landa eremuan girotutako istorio bat landuko du idazle arrasatearrak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarteak eta Txalaparta argitaletxeak elkarlanean euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko helburuz, laugarren (H)ilbeltza beka deialdia egin zuen. Joan den ortzegunean, ilbeltzaren 21ean, jakitera eman zuten, aurtengo Eneko Barberena izanen da bekaren onuraduna.

Landa eremuko kontaketa

Epaimahaikide den Txalapartako editoreak, Garazi Arrulak, jakinarazi zuten, Barberenak landa giroan kokatutako istorio bat jorratuko du eta «mendia norena da? galderari erantzunez, artzain eta mendizaleen desadostasunak, litio meategi bat eraikitzeko enpresa batek duen interesa...». Kontaketa atal motzetan banatuko du eta horrek «irakurketa arin» bihurtzen du.

Sormen eta itzulpen lanak

Lehenbiziko edizioa sormen beka izan zen, Miel A. Elustondok irabazi zuen eta *Kezko*



Eneko Barberena.

bola batek itoak birikak eleberria argitaratu zuen 2019ko hasieran. Hurrengo deialdia itzulpenari egokitu zitzaion, eta Patricia Highsmith estatubatuarren *Lardaska* nobela euskaratu eta 2020 hasieran aurkeztu zuen Josu Barambonesek. 2019an Miren Gorrotxategik irabazi zuen sormen beka eta iaz Koldo Biguriak egindako itzulpena 2022ko ilbeltzean aurkeztuko du.

Euskal Nobela Beltzaren Astea

Ilbeltzaren 20tik 26ra egitekoa zuten Euskal Nobela Beltzaren astea. Dena den, antolatzaileek, egoera ikusita, urtean zehar mahai inguruak antolatzeko asmoa adierazi dute.

Miren Gorrotxategik 2019an saritutako 'Sotoan gordeak' aurkeztu du

TTIPI-TTAPA

Miren Gorrotxategi idazle azpeitiarrak 2019ko (H)ilbeltza bekari esker idatzi duen *Sotoan gordeak* nobela beltza aurkeztu zuen ilbeltzaren 14an Donostian. (H)ilbeltza elkarteak, Baztango Udalak eta Txalaparta argitaletxeak antolatzen duten Euskal Nobela Beltza sustatzeko beka irabazi zuen Gorrotxategik, eta horri esker urte bateko epea izan du lana bukatzeko. Berez, egun haueetan Baztanen ospatzekoa zen Euskal Nobela Beltzaren Astearen baitan egin behar zuen aurkezpena, baina jakina da aurtengo ez dela aitzineko urteetako egitaraurik izanen. Hortaz, Baztanen, otsailean egingen du aurkezpena, ziur aski.

Sotoan gordeak Gorrotxategiren bigarren eleberria da, lehenbizikoa, *33 ezkil* (Elkar), 2017an argitaratu zuen Agustín Zubikarai bekari esker, eta Imanol Rayo zinema zuzendariak duela hilabete batzuk pantaila handira eraman zuen istorio horretan oinarritutako *Hil kanpaiak* filma.



Miren Gorrotxategi libururekin.

Sinopsia

Bigarren argitalpen honetako istorioa Bilbo eta Vianan artean gertatzen da. Gorrotxategik azaldu duenez, nobelak Nora eta Alex ditu protagonista nagusi. Bikotea Guggenheim museoan erakusketa bat ikusten ari da Norak bertze garai bat gogorarazten dion zer bait ikusten duenean, eta Alexek zer gertatzen den galdetzen badio ere, Norak ez dio erantzuten. Egund berean Norak aitaren heriotzaren berria jasoko du, eta bikotea Noraren sorterrira, Vianara joanen da. Han, Alex Noraren iragana ikertzen hasten da, bere sekretuak zeintzuk diren jakin nahian.



ONDIKOL

'Erraldoien istorioa'

Izaskun Gutierrez Arruabarrena eta Juan Angel Perotxena egileek *Erraldoien istorioa* ipuin liburua aurkeztu zuten hilabete hasieran Elizondan. Berdintasuna, esker ona, lankidetzeta eta laguntza bezalako balioak lantzen dituen lana saldu eta sinatzearekin batera, ipuina kontatzen aritu ziren.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

Beatriz

ongizate zentroa
centro de bienestar

Osasunean eta edertasunean adituak gara, 30 urte baino gehiago daramatzagu ikertzen eta trebatzen

Ohartu orduko, ilerik gabe!

LASER SISTEMA BERRIENA erabiltzen dugu, punta-puntakoa, azkarra, segurua, eraginkorra eta ekonomikoa, **GIZONEZKO ETA EMAKUMEENDAKO. KLINIKOKI PROBATUA**, eraginkortasun eta segurtasun ziurtagiria duena. 12 urtetik goitiko guztiendako baliagarria.

Zaindu eta gaztetu

AKNEA ETA FOLIKULITISA –ILE ENKISTATU ETA INFEKTATUAK– desagerrarazteko edota azala gaztetzeko baliagarria. **AURPEGIKO GORRITASUNAK ETA ARMIARMA BASKULARRAK** kentzeko, hanketako osasun baskularra hobetzeko... sistema azkarra eta segurua, **LEHENBIZIKO SAIOTIK BISTAKO ALDAKETA. SAIO GUTITAN** eta albo-kalterik gabe.



Santiago, 53 - 31700 Elizondo
Tel. 948 580 283
info@beatrizbienestar.com



Sistema azkarra

Bigotea minutu bakarrean, besapeak bortz minututan, hanka erdiak edo gizonetzkoen bizkarra ordu laurdenean eta hanka osoak ordu erdiz depilatuak.



Punta-puntakoa

Larruazal zuri eta beltzaranentzat egokia, ile lodiak eta finenak kentzeko aproposa.



Segurua

40 urtez probatua gisa guztietako ile eta azalekin.



Aurreratua

Azaleko tenperaturara egokitzeko eta berezko tenperatura mantentzeko sistema berritzailea.



Eraginkorra

Saio guti eta lehenbizikotik aldaketa nabarmena, hasiera-hasieratik ileen %40 baino gehiago desagerrarazteko ahalmena.



Ekonomikoa

Saioak **15 EUROTİK HASITA.**

Bonu bereziak, etor zaitez eta zure beharrak aztertuko dizkizugu doan!

www.beatrizbienestar.com

Ariketa fisikoa egiteko tresneria ezarriko dute

'Kolesterolaren ibilbidea' osatzeko 5.400 euroko dirulaguntza jasoko du udalak La Caixa Fundazioaren eskutik

ARANTXA ETA IRAIA

La Caixa fundazioaren bidez Udalak 5.400 euroko dirulaguntza jaso du *Kolesterolaren ibilbidea* egitasmoa martxan jartzeko. Egitasmo honen helburua adineko pertsonen ariketa fisikoa egitea bultzatzea da, eta horretarako, herrian barna sei aparatu jarriko dituzte: gihar abdominala eta lunbarra indartzeko, besoan, sorbalden, ukondoen eta eskumuturren koordinazioa laguntzeko bolantea eta bertze ariketa anitz egiteko ere bai (ipar martxa...).



Gisa honetako tresnak jarriko dituzte.

Ekipamendu berri hauekin bizitza aktiboa sustatu nahi da, baita ariketa fisikoak pertsona helduengan duen onurerez kontzientziatzea ere. Kopapena adosterakoan ikusiko ditugu tresna hauek.

Covid-19aren txertoa ailegatu da herriko osasun etxera

Urtarrilaren 15ean Covid-19aren kontrako txertoa ailegatu zen herriko osasun etxerat. Dena den, aitzinetik urdazubiar batek txertoa hartuazuen: Gaineokolako Miguel Migeltorenak. Baztango zahar etxean txertatu zuten lehenetarikoa izan zen.

Dantxarineko mugak kontrolak kontrol irekita segitzen du

Urtarrilaren 14an Frantziak hainbat mugaitxi zituen. Irekita utzitako mugen artean Dantxarineko muga dago. Beraz, Iparralderat pasa behar duenak ate hau irekia izanen du. Halere, jendarmeen kontrolen ondorioz batzuetan auto-ilarak sortzen dira.



ARTXIBOKOA

Aurten ez da San Anton Eguna ospatu

Nekazariarentzat urteroko zita izaten da San Anton Eguna. Meza ondotik bazkari ederra izaten dute eta 25-30 bat nekazari bildu ohi dira. Aurten, ordea, egoera dela eta ezin izan dute egun hau ospatu. 2022rat esperatu beharko da berriro ere mahaiaren inguruan nekazariak elkarturik ikusteko.



OIHANE ETXEBERRIA

Elurraz gozatzeko mendira joan behar

Inguruko herri anitzetara bezala, Urdazubirat ere ailegatu zen elurra urtarrilaren 9an. Arratsaldeko laurak aldean elurra hasi zuen eta gelditzea kosta bazitzaion ere, igande goizean hainbat leku xuriturik agertu ziren. Halere, elurraz gozatzeko eta elurrarekin jolasteko herritarrek mendi alderat jo behar izan zuten.



**ATERA
TTIPI TXARTELA
eta erabili**
pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!



Muga hestearen kontrako protesta Gaineko bentan

Urtarrilaren 16an egin zen elkarretaratzean ehun bat lagun elkartu ziren, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Berakoak

MARIFA ETA KORO

Urtarrilaren 14az geroztik trabak jarri dazkigute Hegoaldek Iparraldera eta alderantziz mugitzeko, Frantziako Gobernuak muga egiten duten pasabide batzuk hetsi dituelako.

Guri zuzen kaltetzen gaituztenak Gaineko-benta eta Lizuniaga ixteak dira. Ondorioz eta protesta gisa, elkarretaratze bat egin zen urtarrilaren 16an Gaineko bentan. Ehun bat lagun elkartu ziren, eta Sara eta Zugarramurdiko udaletatik informazioa eman zuten. Bertso bat ere bota zuten, eta bukaerako txaloen artean,

ondoko belategiko asto batek irrintzinaka bere elkartasuna ere erakutsi zuen.

*Hainbertze mugarekin aspertuak gara
Hoiiek salatzeko gaur dugu parada
Ez dute bereiziko Nafarroa eta Sara
Gure batze gogoa mugagabea da.*

Harritzekoa dena, ixtearen arrazoia da: terrorismoagatik omen delako. Ibardin eta Dantxarinea irekiak daudela ikusirik, bistan da terroristek Ricard-a erosteko arazorik ez dutela izanen...



Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Berako jendea elkarretaratzean. MARIFA ETA KORO



MARIFA ETA KORO

Ohi baino arazo gehiago sortu du elurrak

Elur-larrialdiak eragin ttikia izan du herrian. Usaian ez du elur aunitzik botatzen. Hala ere, itzalean dauden bazterretan, elurrak gehiago iraun du, eta hormak ere arazoak sortu ditu. Horietako bat Etxartea auzoan izan da, harat doan pistan, urtarrilaren 11ko goizean bi kotxe bidetik atera baitziren.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Lizuniagako bidea hetsi dute. FRANCK DOLOSOR

Lizuniaga, Lizarrieta eta Berruet bentako pasabideak hetsiak

Urtarrilaren 14tik aitzinera Lizuniagako eta Lizarrietako lepoak eta Berruet bentako pasabidea hetsi dituzte

TTIPI TTAPA

Pirinio Atlantikoetako Prefekturaren hitetan «terrorismoaren aurkako borroka indartzeko» urtarrilaren 14az geroztik Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko zortzi pasabide hetsi dituzte. Lerro hauek idazterkoan, oraindik ez dute zehaztu noiz arte iraunen duen neurri honek.

Zehazki, hauek dira hetsi dituzten mugako bideak: Hendai eta Hondarribia lotzen dituen itsasoko nabeta; Hendaiako merkantzia zubia; Lizuniagako, Lizarrietako, Izpegiko eta Iturzaetako lepoak;

Berruet bentako pasabidea eta Aldudeko ibarrekoa.

Gainerako pasabideak irekiak daude. Hala, ibilgailuak eta oinezkoak eremu hauetatik pasatzera gomiatu ditu prefekturak: Hendai eta Irun arteko Santiago zubia; Pausuko zubia eta Biriatuko muga; Ibardineko lepoa; Dantzarinea muga eta Arnegi.

Etxeratze agindua

Covid-19aren hedapena kontrolatzeko etxeratze agindua 18:00etara aitzindu zuten urtarrilaren 16an eta, guttienez, bi astez egonen da indarrean.

Aritza Villaluengak Fahardiko Harrian azterketa arkeologikoa eginen du

Aritza Villaluenga, Euskal Herriko Unibertsitateko Historiurreko irakasle laguntzaileak ikerketa zientifikoen esparruan azterketa arkeologiko bat egiteko proposamena luzatu zion Herri Kontseiluari eta honek abenduaren 21ean eginiko bilkuran bere onespina eman

ziola plazaratu du. Jose Miguel de Barandiaran izan zen Fahardiko Harria bisitatu zuen lehen ikerlaria, 1942an. Ondotik eginiko indusketetan ondare litikoak eta brontzezko aizkora aurkitu baziren ere, inoiz ez da indusketa arkeologiko arauturik egin.



GANEX

Berrero ere zelaian dira Izarrak

Hamar hilabeteko geldialdiaren ondotik, Izarra errugbi taldeak urtarrilaren 9an jokatu eta irabazi zuen Irungo Txingudi errugbi taldearen kontra (21-5). Hurrengo partida urtarrilaren 16an Donostiako Bera Beraren kontra jokatu zuen eta berriz ere garaile suertatu ziren saratarrak (20-41).

Larrun Ttiki haur bilgunea otsailaren 8tik otsailaren 19ra irekia izanen da

Larrun Ttiki haur bilguneak otsailaren 8tik 19ra zerbitzua eskainiko du. Hiru eta hamabi urte arteko 48 haurrentzat edukiera du. Hortaz, izen-emateak lehenbailehen egitea komeni da.

Ordutegia

Haur bilgunea 07:30etik 18:30era irekia dago, eta eguneko jarduerak 09:00etatik 17:00etara izaten dira. Egunero egitaraua aitzinera eramateko, bilguneako arduradunek ordutegia errespetatzea eskatu dute.

Prezioak

Herriko bizilagunentzat zerbitzu honen eguneko prezioa 11,50 eurokoa da. Herritarrak ez direnentzat, berriz, prezioa 13,50 eurokoa da. Prezioak bere gain hartzen du eguneko otorduaren edo ogitartekoaren gastua.

Ez etortzea

Haurrak joan ezin badu, 09:30ak aitzin zentzora abisatu behar da. Huts egitea mediku-egiaztagiriarekin frogatu behar da, bertzela, eguneko prezioa ordaindu beharko da.

Jean Marc Duponten itsas-abentura Atlantikoan barrena

Abenduaren 13an abiatu zen herriko arraunlaria eta bidearen laurdena, 4.000 kilometro eskas egin behar luke

JEAN-LOUIS BESSONART

Badira jadanik borts aste pasa (joan den urteko abenduaren 13tik), Jean Marc Dupont senpertar arraunlariak bere abentura abiatua zuenetik, eta orainokoa bidearen laurdena egin luke Martinika ugartera ailegatu aitzin (4000 kilometro eskas). Lehen asteak biziki zailak ukan ditu, bereziki haize eta itsas korronea kontra izanik arraunekin egin lan guzia deuseztatua delakoan. Adibidez, bizpahirutan egin ditu itzuli handi batzuk berriz hastapeneko puntura

heltzeko. Egun anitz galdu ditu eta pixka bat nahigabetua egon bada ere, berriz gaintia hartua luke eta, iduriz, haizeak ere zentzu onera pusatzen du orain.

Ikusten duzuen bezala denetarik jasaten ari da herriko itsas-gizona, ekaitzak azkar jotzen duelarik sartzen da babes-kabinaren barnera eta itxoiten du itsasoa jabal dadin. Gauza bat argiarazten du bere ontzi liburuan, kuraiez beterik dagoela eta ez duela etsiko bururaino ailegatu aitzin.

Aupa Jean Marc!



Jean Marc Dupont babes-kabinaren barrenean. UTZITAKOIA

Osasun egoeraren kariatara agiantzak prentsaren bidez eman ditu ezagutzera herriko kontseiluak

Aurtengo egoera sanitarioa ikusiz, anitz herriko kontseiluk egin duten bezala Senperen ere prentsa gomitatua izan da agiantzen helarazteko irakurleei. Orogen gaintetik, auzapezak bi hizkuntzetan desiratu du, urgentzia delakoan, osagarri on, elkartasuna eta la-

saitasuna, hitz hauekin gogoratu ditu komertzio, lantegi, kultur eta kirol munduek zer egoera mingarria jasaten duten. Jadanik herriko kazetan agertzen diren puntu anitz azaldu ditu, baina gaur egun zalantzan dira hainbat proiektu, tunelaren itzaletik argira

ateratzekoan, emeki-emeki gauzatuko direnak. Halere bi egitasmo nahi lituzkete lehenbailehen martxan ezarri, kartieretako kontseiluak baita neurtu elkarte eta egituren beharrak hautetsi, herriko langile eta herritarren partehartzearekin.

Uda garairako langileak xerkatzen ditu Senpereko Herriko kontseiluak

TTIPI-TTAPA

Udako sasoinari buruz, urterro bezala, herriko kontseiluak 18 urtez goitiko gazteak kontratatu nahi ditu, hainbat zerbitzutan aritzeko, hala nola, aisialdia zentroan, lakuaren garbitze-lanetan, pedaloak, auto aparkatzeetan, berdegutetan eta abar...

Baldintzetan, 18 urte beteak izatea da ekainaren 25a aitzin, lan galderaren dosierra herriko etxean eskuratzen ahal da edo accueil@senpere64.fr helbide elektronikoa xehetasun guztiak bila daitezke. Matxoaren 1a galderen azken epea da, beraz erne ibili.

Herriko hainbat gazterentzat lanerako sarbidea izaten dira udako lanbide hauek.



Alkatea eta axuantak agiantzen berri ematerakoan. JL BESSONART

Julen Olano leitzarra bigarren mailako txapelaldun aizkoran

Asier Pellejero aresoarrarekin batera Nafarroako lehen mailara igoko da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketaren finala jokatu zuten urtarrilaren 17an Lekunberrin. Bi kanaerdiko, 60 ontzako bertze bi enbor eta oinbiko bat moztu behar zuten eta lana burutzen lehena Julen Olano leitzarra izan zen (17:24). Aresoko Asier Pellejero izan zen bigarren (18:57) eta biek lortu dute lehen mailara igotzea. Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberriak osatu zuen podioa (20:54) eta Beintza-Labaiengo Jon Telletxea laugarren izan zen (21:50).

Etxekonanea 3. mailara

Txapela ez ezik, jaitsiera ere jokoan zen Lekunberrin. Izan ere, bigarren mailako aizkora txapelketako kanporaketan, Patxi Mindegia zubietarrak ezin izan zuen parte hartu lesio baten ondorioz. Kanporaketa hartan Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea azken aitzineko sailkatu zen. Maila mantentzeko asmoarekin jaitsiera kanporaketa jokatzeko eskatu zuen Mindegiaren aur-

ka. Kanporaketa hori ere ilbeltzaren 17an jokatu zuten Lekunberrin. Bina kanaerdiko eta 60 ontzako bat moztu behar izan zituzten eta Mindegia erraz nagusitu zen (10:18). Etxekonaneak 13 minutu eta 5 segundo behar izan zituen eta maila galdu du.

Nafarroako arpana txapelketa mistoa Ultzamara

Lekunberriko saioa borobiltzeko Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu zuten eta Ultzamako Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena nagusitu ziren. Etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar epai emateko 5 minutu eta 38 segundo aski izan zituzten. Daniel Saldias arraioztarra, Irene Biurruarekin bikote eginez bigarren izan zen (6:48) eta Olatz Altunak eta Josu Elizaldek osatu zuten podioa. Eskualdeko bertze ordezkariak dagokienez, Lekarozko Sela Goñi eta Jesus Goñi bosgarren izan ziren (7:30) eta Sunbillako Unai Bertiz eta Esti Gastearena bederatzigarren (8:52).



Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketako podioa. UTZITAKO ARGAZKIA



Nafarroako arpana txapelketa mistoko podioa. Ezkerrean, Dani Saldias. UTZITAKO

ARPANA MISTOA

EMAITZAK

1. IRAIZOZ-BARBERENA	5.38
2. BIURRUN- Dani SALDIAS	6.48
3. ALTUNA-ELIZALDE	7.23
4. RODRIGUEZ-HUARTE	7.26
5. Sela GOÑI-Jesus GOÑI	7.30
6. IZURA-GIL	7.45
7. GOÑI-AIZKORBE	8.36
8. OLANO-GARAIKOETXEA	8.50
9. Esti GASTEARENA-Unai BERTIZ	8.52
10. GANUZA-GOLDARAZENA	9.23
11. TANCO-KAÑAMARES	10.04
12. OTXOA-OTEIZA	10.09

2. MAILAKO AIZKORA

2020KO FINALA

1. Julen OLANO (Leitza)	17.24
2. Asier PELLEJERO (Areso)	18.57
3. Jesus ETXEBERRIA (Labaien)	20.54
4. Jon TELLETXEA (B-Labaien)	21.50

Olano eta Pellejero mailaz igoko dira eta lehen mailan ariko dira

JAITSIERA KANPORAKETA

1. Patxi MINDEGIA (Zubietza)	10.18
2. Jacinto ETXEKONANEA	13.05

Beintza-Labaiengo Etxekonaneak maila galduko du

Malerrekako eskuz binakako XIX. pilota txapelketaren finalak otsailaren 20an

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 17an abiatu zen Doneztebeko Erreka elkarteak hemeretzigarren urtez antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa. Covid-19aren eraginez, Nafarroako pilotariak bakarrik ari dira eta, ondorioz, pilotari guttiago ari dira. Benjamin Legasan, alebinak eta

infantilak Lesakan eta kadete eta jubenilak Donezteben aritu ziren lehen jardunaldi honetan. Kategoria ttikienetako finalurrekoak igande honetan, ilbeltzaren 31n jokatuko dituzte.

Urtarrilaren 19an eta 20an, elite mailako pilotarien txanda izan zen eta lehen kanpo-

raketa jokatu zuten Legasan eta Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Jardunaldi horretako irabazleek finalurrekoak jokatuko dituzte otsailaren 3an pilotaleku berean.

Senior mailako pilotariak urtarrilaren 27an jokatzeko zuten lehen jardunaldia eta hauek ere otsailaren 3an izanen dituzte finalurrekoak.

Kategoria guztietako finalak otsailaren 20an jokatuko dituzte Donezteben.



Pilotari nafarrak bakarrik ari dira.



Unai Iantzi aniztarra Euskal Herriko lokotx-biltze txapelkun lehen aldiz. UTZITAKOAA

Euskal Herriko lokotx-biltze txapela jantzi du Unai Iantzik

Nafarroakoa hiru aldiz irabazi ondotik, lehen aldiz lortu du Euskal Herrikoa, bere markarik onena eginez (6:02)

TTIPI-TTAPA

Bi modalitatetako Euskal Herriko txapelketak jokatu zituzten urtarrilaren 16an Abadiñon (Bizkaia). Eskualdeko kirolarien parte-hartzea bikaina izan zen eta lehendik Nafarroakoa hirutan irabazia zuen Unai Iantzi aniztarrak lehen aldiz Euskal Herriko txapela jantzi zuen lokotx-biltzen, marka bikainarekin (6:02). Aniztarraren marka onena izan da, aitzinetik zuena zazpi segundotan hobetuz eta 2004. urtean Fernando Etxegarai beratarrek egin zuen errekorretik bertz segundo eskasera. Gehiago oraindik, Iantzik historiako hirugarren denbora onena egin du, 2012an Eneko Garmendia gipuzkoarrak egin zuenatik 8 zentesimara. Maika Ariztegi iturendarra txapelkunorde izan zen lokotx-biltzen eta laugarren ingude altxatzen eta Josetxo Urrutia leizarra hirugarren izan zen ingude altxatzen, txapelkunak eta bigarrenak baino altxaldi bat guttiagorekin.



Maika bigarren lokotx-biltzen.

Lehenik, emakumezkoen lokotx-biltze txapelketa jokatu zen. Ultzamako Ainhoa Iraizoz nagusitu zen, bigarren izan zen Maika Ariztegi iturendarra eta hirugarren Arabako Zuriñe Frutos.

Ondotik, gizonzkoen lokotx-biltze txapelketan Unai Iantzik lortu zuen txapela, marka bikainarekin (6.02). Bertze nafarrak, Aitor Blancok, lortu zuen bigarren postua eta Aritz Martin bizkaitarrak osatu zuen podioa.

EH LOKOTX-BILTZEA

GIZONEZKOAK

1. Unai IANTZI (Aniz)	6.02
2. Aitor BLANCO (Nafarroa)	6.14
3. Aritz MARTIN (Bizkaia)	6.22
4. Patrick SAIUA (Bizkaia)	6.45
5. Xabier VEGAS (Araba)	6.46
6. Mattin JAUREGI (Gipuzkoa)	7.03
7. Jon VEGAS (Araba)	7.14
8. Uxer MOZO (Gipuzkoa)	7.34

EMAKUMEZKOAK

1. Ainhoa IRAIZOZ (Ultzama)	7.32
2. Maika ARIZTEGI (Ituren)	7.56
3. Zuriñe FRUTOS (Araba)	8.13

EH INGUDE ALTXATZEA

GIZONEZKOAK

1. Gorka ETXEBERRIA (Gipuzkoa)	87
2. Iosu MARTURET (Nafarroa)	87
3. Josetxo URRUTIA (Leizta)	86
4. Igotz ARDEO (Bizkaia)	80
5. Unai GOITIA (Gipuzkoa)	78
6. Unai ARDEO (Bizkaia)	77
7. Jon Ander MALAINA (Bizkaia)	77
8. Pablo ALVAREZ (Bizkaia)	67

EMAKUMEZKOAK

1. Karmele GISASOLA (Bizkaia)	97
2. Valentina RANCEL (Bizkaia)	91
3. Nerea EGURROLA (Bizkaia)	90
4. Maika ARIZTEGI (Ituren)	89
5. Garazi ARRUTI (Bizkaia)	85
6. Esti CIDAD (Araba)	80

Ingude txapelketak

Gero, emakumeen ingude-jasotze txapelketa jokatu zuten, 10 kiloko ingudearekin, minutu eta erdian ahalik eta jasoaldi gehien egitera. Hiru bizkaitarrek osatu zuten podioa. Txapelkun, Karmele Gisasola izan zen (97 jasoaldi), bigarren Valentina Rancel (91 jasoaldi) eta hirugarren Nerea Egurrola (90 jasoaldi). Podiotik jasoaldi bakarrera gelditu zen Maika Ariztegi iturendarra (89 jasoaldi).

Azkenik, gizonzkoak aritu ziren 18 kiloko ingudearekin. Gipuzkoako Gorka Etxeberriak eta Iosu Marturet nafarrak 87na jasoaldi egin zituzten minutu eta erdian, baina gipuzkoarra pisuz arinagoa izanik, beretzat izan zen txapela. Josetxo Urrutia leizarra bietatik jasoaldi bakarrera gelditu zen (86 jasoaldi) podioko hirugarren koxkan.

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketa azkarra jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 28an hasita, lau egunez Bortzirietako banakako pilota txapelketa azkarra jokatu zuten Beran, eta urtezahar egunean, zazpi kategoriaran banatuta jokatu zituzten finalak.

59 neska-mutikok hartu zuten parte 2020ko azken astean Berako Eztegarra pilotalekuan jokatu zuten pilota txapelketan. Osasun egoera tarteko, publikorik gabe eta pilotari bakoitzarekin laguntzaile bat sartuta jokatu zituzten partidak. Finalak, berriz, abenduaren 31n egin zituzten.

Tikien kategorian, Beñat Goñi (Bera) eta Amets Madariaga (Arantza) aritu ziren finalean eta beratarra nagusitu zen.

Umeen B mailan, berriz, Aner Mariezkurrenak (Arantza) eta Ibai Criadok (Lesaka) jokatu zuten finala eta txapela aranztarrak jantzi zuten.

Umeen A mailako txapela ere Arantzara joan zen. Ander Etxegarai (Arantza) eta Urko Telletxea (Igantzi) aritu ziren nor baino nor gehiago, eta Etxegarai gailendu zen.

Kimuetan, Markel Irazokiren (Etxalar) eta Kemen Telletxearen (Igantzi) arteko finala izan zen, eta Irazokik irabazi zuen.

Haurretan, alde batetik, neskek eta bertzetik, mutilak aritu ziren. **Nesketan** Amaier Martinezek (Lesaka) eta Kattin Madariagak (Arantza) jokatu zuten finala eta lesakarrak lortu zuen garaipena. **Mutiletan**, bertzalde, Eukeni Etxenike (Igantzi) eta Unax Bereau (Lesaka) aritu ziren finalean, eta Bereaurentzat izan zen txapela.

Kadeteen mailako finalean, azkenik, Oier Orbegoza eta Beñat Etxabide lesakarren arteko lehia izan zen. Orbeagoza nagusitu zen.

URTARRILAK 28 - OTSAILAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

ELIZONDO **Gandeia taldearen emanaldia**

Musika eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna.
Arizkunenea kultur etxean, ilbeltzaren 31n, 19:00etan.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zetabe, bat bertzearen behartu gabe' aurkezpena

Arizkunenean, ilbeltzaren 29an, 19:00etan. *Gonbidapenak: 18:30etik aitzinerat.*

'Sugarren mende' liburu aurkezpena

Asisko Urmeneta eta Helena Xurio egileak hizlari.
Arizkunenean, otsailaren 5ean, 19:00etan. *Gonbidapenak: 18:30etik aitzinerat.*

'Xertoa zu zerorre zara'

Arturo Vinuesa medikuaren eskutik.
Arizkunenean, otsailaren 12an, 18:00etan.

'Oinarri zientifikoak biomedizinan'

Biologia molekularrean doktorea den Asier Galan hizlari.
Arizkunenean, otsailaren 19an, 18:00etan.

LEITZA

Hileta zibilak hitzaldia

Iñaki Olaizola Eizagirrerren eskutik.
Herri Aretoan, otsailaren 4an, 18:30ean.

ARANTZA

'Sugarren mende' liburu aurkezpena

Asisko Urmeneta eta Helena Xurio egileen eskutik.
Eskolan, otsailaren 6an, 18:00etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Klaustrofilia erakusketa

Xehetasunak: www.centrohuarte.es webgunean.
Arizkunenean, otsailaren 14ra arte, astelehenetik larunbatera.

LEITZA

Doluari buruzko erakusketa

Miren Fagoagaren eskutik.
Herri Aretoan, otsailaren 1etik 7ra, 18:30etik 20:00etara.

IKASTAROAK

DONEZTEBE

Ekimen antolakuntza ikastaroa

Nafar Lansarek antolatuta.
Otsailaren 11ra arte. Argibideak: 848 42 18 01 telefonoan.

ELIZONDO

Kantu herrikoiak

Kalakan taldeko Thierry Biscaryren eskutik.
Arizkunenean, martxoaren 17ra arte, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era.

Musikoterapia ikastaroa

Haizea Loira gidari.
Arizkunenea kultur etxean, martxoaren 12ra arte ortziraleroko, 10:00etatik 11:30era bitarte.

ARIZKUN

Kirikoketa eta txalaparta ikastaroak

Gamioxarrean, astearte eta ortzegunetan 16:00etatik goiti.

Iraupena: 12 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

BAZTAN

Mutildantza erakusleendako ikastaroa

Ortziraleetan 19:00etan eta larunbatetan 11:00etan.
Iraupena: 20 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

Mutildantza ikastaroa

Ortzegunetan, 19:00etan.
Informazio gehiago: 676 20 44 30.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Iluntzen' antzezlan

Mairu antzerki taldea.
Harriondoan, ilbeltzaren 30ean, 18:00etan. Sarrerak 5 eurotan salgai.

ELIZONDO

Gandeia kontzertua

Arizkunenean, ilbeltzaren 31n, 19:00etan.

'Niretik' bertso saioa

Andoni Egaña bertsolaria, Jon Ostolaza soinu-jolearen laguntzaz.
Arizkunenean, otsailaren 7an, 19:00etan.

LEITZA

'Bideak' aurkezpena eta proiektzioa

Aritz Ganboa Arruazuko artzainarekin.
Herri Aretoan, ilbeltzaren 30ean, 19:00etan. Sarrerak Astiz eta Maimur liburu-dendetan 5 eurotan.

'Haizearen egia'

Saharako egoerari buruzko mahai ingurua eta dokumentala.
Herri Aretoan, otsailaren 13an, 18:00etan. Sarrerak otsailaren 6an Astiz eta Maimur liburu-dendetan 5 eurotan.

Nire aukera

«Herriaren hazkuntzan eta gizartearen heziketan jarraitzeko dago Itzair»

EDURNE JAUREGI URKIOLA LEITZARRA



Leizarra da sortzez eta bihotzez Edurne Jauregi (Leitza, 1992), baina Anoeta du bizitoki. Hanka bat Nafarroan eta bestea Gipuzkoan duela, harat-honatean ibiltzen da egunerokoan: «Nafarroan egiten dut lan, inklusio laguntzarako teknikaria naiz eta behar anitzak dituzten haur nahiz nerabeekin aritzen naiz. Arratsaldetan, nire bizitoki inguruko hainbat neraberri errefortzu saioak ematen dizkiet». Astegunetan, lanetik kanpoko denbora libredu eguneroko paseotxoak egiteko eta ikasteko baliatzen du. Asteburuetan, berriz, «aisialdiaz gozatu eta sukaldetan saltsan» aritzen da.

Sormena, gozamena

Sortzea «txiki-txikitatik» gus-tuko izan du Jauregik. Eskuak eta burua landuz, bere baitatik ateratako bitxi eder andana gordetzen ditu: «eskulanak, marrazkiak, poesiak, bertsoak...». Normalean berarentzako gordetzen ditu lanak, baina bada kanporatu duenik ere: «noiz edo noiz idatzizko bertso lehiaketa edo mikro-ipu-

lehiaketaren batean parte hartu dudana arren, zentzu horretan ez naiz kanpora begirako pertsona bat». Bestela izaten da sukaldako sormen lanekin, errezeta osasuntsuak egin eta jendeari probatzeko ematea «asko» gustatzen baitzaio.

Etiket plaza

Pixkanaka, ordea, lanak azalderatzen hasi da eta harrera bikaina izan du: «2020an konfinamenduari lotutako hainbat ekimenetan parte hartu nuen, hala nola, Amazabal institutu-ko emozioei buruzko argazki lanketan». Etxean egon behar-rak bultzatu zuen Itzair haur eskolako logoa berritzeko egindako lehiaketara leizarrak sortzailea: «birusa dela eta 10 egunez gelan egon behar nuela esan zidan medikuak». Denbora-pasa, Leizako Udalaren web orrialdean berriak irakurtzen sartu zen batean ikusi zuen deialdia: «ostirala zen eta astelehena zen lanak aurkezteko azken eguna». Etxean egon behar-rak eragindako «amorrua» alde batera utzi, jarrera aldatu eta parte hartzea

erabaki zuen unean hasi zen ideiak garatzen eta garatutakoari forma ematen: «asteburu osoan nire amorruez oroitu ere ez nintzen egin, emozioen lanketa ikaragarria izan zen». Ilusio handiz egin zuen, eta ilusioz hartu zuten herritarrek irudia. Izan ere, bere lana izan zen 300 parte-hartzailearen artean aukeratua: «ez nuen halakorik espero, eskerrik asko nire lagun Carmen eta Aloñari emandako laguntza eta aholkuengatik eta Leizako herriari aukera emateagatik. Niretzat ohore handia da haur eskolaren egindako logoa izatea eta kosta egiten zait emaitza han eta hemen ikusiko dudala sinestea».

Gaztain batean haur eskolaren izaera

Gaztaina aukeratu zuen haur eskolaren izaerarekin bat egiten duen iruditza Jauregik: «Leiztan ugaria den naturak emandako fruitua izateaz gain, haurtzaroen pertsona askoren bizitzetan ageri den elementua delako: amonaren sutondoan, familia osoa gaztainak biltzera joaten gineneko egun-pasetan, Eguberrietan ('Hator hator' kantan erraterako) duten presentzia...». Ez da gaztain arruntaren logoan bildu duena, «komunitate anitza da gurea eta gaztainean irudikatutako pieza inperfektu horiekin taldea adierazi nahi izan dut, puzzle bat osatu». Erdigunean atea jarri, «haurra protagonista» egin nahi izan du eta erantsi dizkion hiru ileekin «haurren adin-tarteari» egin nahi izan dio keinu.

Jendaurrera salto

Talde bakoitzak bere kolorea du eta kolore bakoitzak bere

«EMOZIOAK LANTZEKO AUKERA EMAN DIT LOGOAK SORTZEAK»

esanahia sortzailearen lanean: «urdinak egonkortasuna, askatasuna eta gardentasuna adierazten ditu; berdeak natura eta oinarri sendo gisa jarri dit; horiak Itzair haur eskolan itzartzen den eguzkia; laranjak sua eta giro epela; gorriak maitasuna; moreak magia, indarra eta berdintasuna; eta zuria haur bakoitzaren sormena islatzeko orri txuria». Kolorerik banaka duten esanahiri elkartzean hartzen duena gehitu nahi izan dio: «denak bateratuta maskara koloretsu bat osatzen dute, hau da, ongi pasatzeko une asko».

«Gaztaina maskorretik ateratzen den bezalaxe, gu ere gure txikitasunean autonomia geureganatzen joaten gara, eta horretarako ezinbestekoa da Itzair» Jauregiren ustez. Hortaz, egiten duen ekarpena azpimarratzeko da: «herriaren hazkuntzan eta gizartearen heziketan elkarlanean jarraitzeko baliabide ederra da».

Herri «aberatsa»

Horrek guztiak eta gehiagok egiten dute Leitza: «Leizak natura du, naturan murgildua dago eta. Leizak festa du, fanfarroiak izanen ez gara ba! Leizak onddoak, gaztainak eta mendiak ditu, gipuzkoarrak etorriko ez dira ba! Leizak kultura eta historia du, bisitariak izanen ez ditugu ba! Leizak kirolariak eta kirolzaleak ditu, aberatsak izanen ez gara ba! Leizak baserri eta ekoizleak ditu, bertakoa sustatuko ez dugu ba! Eta, Leizak haurrak eta gazteria ditu, beraz, etorkizuna ez da faltako!».

Herrian dutena estimatzen du leizarrak: «zerbait falta al du Leizak?» dio irri artean. Txoko guztietan, bezala, bada zer hobetua eta gaztea den aldetik, «alokairurako aukera gehiago edo garraio publiko aberatsagoa» eskatuko litzuzke, Leizara itzultzeko edo joan-etorriak arintzeko gogoia baduen seinale.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.

LESAKA. Bittiriko plazan pisu ederra salgai. ☎687 33 00 17.

BERA. Kanttonberri karrikan, 6. zenbakian, pisua salgai. Sukaldea, egongela, bainugela, 3 logela eta bi balkoi ditu. ☎610 77 54 48.

EROSI

Borda bat erosi nahi dute, berdin da non eta zein egoeratan dagoen. ☎693 69 49 76.

LEITZA. Herrigunean etxebizitza bat erosi nahi dute, lur eremuarekin. ☎615 70 47 28.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pertsona batentzako logela bat errentan emateko. Erretzaila ez dena. ☎678 85 50 56.

BERA. Legia karrikan 100 m²ko pisua errentan emateko, igogailuarekin eta mobleztatua. ☎653 02 13 20 / 685 76 44 00.

ELIZONDO. Lanbide eskolatik 100 metrota etxebizitza errentan emateko. Altzariz hornitua eta eraberitua. Bi logela, gela, sukaldea eta bainugela. Gela guztiak kanpoaldera begira. Balkoi bat. Prezioa 520 eurokoa da, ez ordaintzeagatik aseguru barne. WhatsApp erantzuten dugu. ☎644 42 53 36.

ERRENTAN HARTZEKO

MALERREKA, BAZTAN edo BORTZIRIETAN bikote gazte batek pisu bat errentan hartu nahi du, zakur batekin. ☎638 91 46 94.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ZERBITZUAK

DENETARIK

Ingeniari tekniko batek jarduera sailkatuak, proiektuak eta ikerketak egiten ditu. 688 60 99 05 / joxebe1@gmail.com.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LANA

ESKARIAK

Tornuekin aritutako eta soldaduraren inguruko jakintza duen 39 urteko gizonezkoa **lan bila**. ☎601 00 43 06.

GOIZUETA inguruan emakumea lan bila. Orduka ariko litzateke. Adinekoekin eta etxeak garbitzen esperientzia duena. ☎646 93 64 92.

Batzanera bititza etorri den neska euskalduna edozein arlotan lan egiteko prest: garbitzaile, zerbitzari, zaintzaile, kutxazain, saltzaile... Esperientziaduna dendari, garbitzaile eta ume-zain. ☎646 50 18 07.

IRUN eta INGURUAN sortzez nikaraguarra den emakumezkoa lan bila, adinekoak eta haurrak zaintzeko edota etxeak garbitzen aritzeko. Externa eta interna gisa lan egiteko

prest. Erreferentziekin. ☎677 24 93 27.

Eskualdean adineko jendea zaintzen aritzeko lan bila. ☎632 56 00 52.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Bi hilabete dituzten ardi **txakurkumeak** oparitzeko. Arrak. ☎620 13 57 21.

SALGAI

10 ardi mutur-gorri salgai, ernari edo bildotsarekin. ☎607 89 09 66.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,70/6,00
- 8-10 kilokoak: 5,10/5,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 47 €

Zerri gizona 1,096 €

Zerramak 0,360€ kg/bizirik


Datu iturria: Nafarroako Gobernua urtarrilaren 8tik 15era bitarteko prezioak)



GOIZUETA. Betizuak salgai, oso gogorak. ☎655 70 60 73.

DENETARIK

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Guztia 200 eurotan. ☎673 54 87 67.



Egurrezko hamabi aulki salgai, 120 eurotan (bakoitza 10 eurotan). ☎653 02 13 20 / 685 76 44 00.



Liburutegi-altzaria eta **altzari osagarria** salgai, biak gerezi egurrarekin eginak. ☎696 44 34 27.

Solarium Philips salgai. Gorputz osokoa eta aurpegi babesarekin. Zutik, etzanda eta jarrita erabiltzeko. Tenporizadorea eta itzaltze automatikoa. Mugitzeko erraza eta leku gutti behar da gordetzeko. ☎690 26 57 76.

Belarra salgai, fardo ttikietan, ardi, behor eta behientzako. Ongi idortua. ☎618 96 27 74.



Sukaldeko txokorako jarlekua (*rinconera*) salgai. ☎676 38 94 81.

Egongelako eta sarrerako altzariak salgai. Pinu mexikarraren egurrarekin egindakoak. ☎676 38 94 81.

Su-egurra salgai. Eltzaurra eta lizarra, sutarako hautsia: erdia kozinarako eta bertze erdia lurreko sutarako. Ona eta merke. ☎948 63 40 87 (20:00-22:00).



90 cm-ko **bi ohe** salgai, bere mesanotxearekin. Koltxoiak eta somie-

rrak barne. Hagitz egoera onean. Prezioa: 175 euro. ☎685 76 44 00.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).

GALDU-AURKITUAK

BERA. Giltzak galdu dira. ☎610 95 61 30.

GANIX
Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT CLIO IV dci 90 CV
30.000 km
Eskaintza berezia
9.500€

RENAULT MEGANE IV dci 90 CV
48.000 km
Eskaintza berezia
12.950€

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

SUZUKI GRAND VITARA
SUZUKI GRAND VITARA 1.9 DDI JXE 3P.

4x4

TOYOTA RAV 4
RAV 4 2.0 D4D 5P. 4X4

www.mendaurmotor.es

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN
Diseinua prestatzetik inprimitzeraino, prozesu osoa

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eu

KONTATU KONTUAK



Organo eta oboe doinuekin ospatu dituzte Berako organoaren 125 urteak. 1896ko urtarrilaren 17an aditu ahal izan zen lehenbiziko aldiz organo doinua Berako elizan eta aurtan, 125. urteurrena ospatzeko, *Haizearen oihartzunak* organo eta oboe kontzertua eman zuten Berako elizan.



Lesakako dantzariak trikitixaren doinuekin dantzan. San Anton egunaren seinale, urtarrilaren 17an, kontzertua eman zuten Trikidantz taldeak Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Taldearen *Bizitzaz goxatu* disko berriko lanak ezagutzeaz gain, Lesakako Tantarumairu taldeko dantzarien saioaz gozatzeko aukera ere izan zuten bildutakoek.



Txertoa ospitale mugikorrean. Covid-19aren aurkako txertoa paratzeko Nafarroan batetik bertzera ibiliko den ospitale mugikorrak urtarrilaren 19an Oronoz-Mugairin hasi zuen ibilbidea. 170 bat lagunek hartu zuten txertoaren lehenbiziko dosia, zehazki, Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako langile soziosanitarioek eta menpekotasun handiko lagunek hartu zuten. Otsailaren 9an itzuliko da ospitale mugikorra eskualdera, txertoaren bigarren dosia emateko.

ZERBITZUAK

SORTZEAK

- **Elaia Agerre**, Sarakoa, azaroaren 19an.
- **Nicoleta Clopot**, Doneztebekoa, abenduaren 9an.
- **Andrian Clopot**, Doneztebekoa, abenduaren 9an.
- **Emma Etxegarai**, Sarakoa, abenduaren 13an.
- **Huann Ferreira Silva**, Lesakakoa, abenduaren 27an.
- **Leire Oskariz Teiletxea**, Etxalarkoa, ilbeltzaren 17an.

EZKONTZAK

- **Xabier Altzuri Apezetxea** eta **Maria Hernandez Bergara** Arantzakoa eta Lesakakoa, urtarrilaren 9an Lesakan.


HILBERRIAK

- **Jean Baptiste Subelzu**, Sarakoa, abenduaren 15ean, 93 urte zituela.
- **Jose Fermin Albiasu Astiz**, Narbartekoa, urtarrilaren 8an, 86 urte zituela.
- **M^a Lorenza Telletxea Gastearena**, Leitzakoa, urtarrilaren 9an, 87 urte zituela.
- **Micaela Soria Berasain**, Leitzakoa, urtarrilaren 9an, 84 urte zituela.
- **Jose M^a Arregi Urteaga**, Elizondokoa, urtarrilaren 11n, 59 urte zituela.
- **Martintxo Arretxea Belarra**, Doneztebekoa, urtarrilaren 12an, 59 urte zituela.
- **Pedro Hualde Indakotxea**, Zubietakoa, urtarrilaren 12an, 90 urte zituela.
- **Miguel Nieve Albiasu**, Leitzakoa, urtarrilaren 14an, 68 urte zituela.
- **Marcelino Etxenike Aleman**, Iruritakoa, urtarrilaren 15ean, 78 urte zituela.
- **M^a Carmen Prieto**, Elizondokoa, urtarrilaren 17an, 56 urte zituela.
- **Tiburcio Apeztegia Saldias**, Iturengoa, urtarrilaren 17an, 83 urte zituela.
- **Juan Iturbide Berrueta**, Etxalarkoa, urtarrilaren 18an, 79 urte zituela.
- **Alejandro Aragon Morentin**, Elizondokoa, urtarrilaren 19an, 88 urte zituela.

OROIGARRIA

Loli OTXANDORENA LASAGA

Gartzainen, 2021eko urtarrilaren 2an



Ez da inoiz itzaliko
zure txistuaren oihartzuna,
Ez da inoiz itzaliko
zukanako maitasuna.

Zurekin bizitakoak
oroitzen ditugu irrian,
beti egonen zara zu
guztion bihotzian.

ZURE FAMILIA

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



Aseguru guztiekin lan
egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)
LEITZA (Ind. Landa II, 7. nabea)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

URTEBETETZEAK



Aunitz urtez, **Narra!!!** 9 urte! Ongi-ongi pasatu zure egunean eta muxu handi bat familia guziaren partetik. Zorionak!



Berako **Noa Irazoki Irazoki** otsailaren 2an 9 urte beteko ditu. Zorionak familia guziaren partetik, Noa! Ikaragarri maite zaitugu!



Lesakako **Hegoi Zelaieta Urrizak** urtarrilaren 16an 7 urte bete ditu. Zorionak txapeldun Oizko familiaren partetik eta muxu handi bat!!



Arraiozko **Aiora Arraztoa Agerreberek** urtarrilaren 22an 8 urte bete ditu. Aunitz urtez familia guziaren partetik, eta bereziki Oinatz eta Urkoren partetik.



Naikari eta **Joritz Aitzuri Mindegia** urtarrilaren 12an 6 eta 2 urte bete dituzte. Muxu handi bat familia guziaren partetik, eta bereziki atta, ama eta Leiane ahizparen partetik.



Arantzako **Kattalin Ordoki Hualde** eta **Eneko Ordoki Agesta** osaba-ilobek urteak beteko dituzte otsailaren 1ean eta 5ean. Zorionak familia guziaren partetik eta ea berendu goxo bat prestatzen duzuen!!



Arantzako **Kattalin Ordoki Hualde** gure ebeko erreginak 5 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Aunitz urtez atta, ama eta bereziki zure anaitxo Xubanen partetik. Gominolazko muxuak zuretzat!!!!



Maddi, Nahia eta **Jare Olanok** 6 urte bete dituzte urtarrilaren 19an. Zorionak eta musu handi bana etxeko partetik!



Igantziako **Jon Aranguren Irigoienek** 8 urte beteko ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez zure arreba Haizea, bi amatxi eta gurasoen partetik. Muxu potoloak gure partetik!



Aresoko **Maddik** 3 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak gure *nexkatxe* haundiari eta txokolatezko muxu erraldoiak! Ederki ospatuko dugu!



Lesakako **Aizpea Terreros Alzugarai** 5 urte beteko ditu otsailaren 4an. Zorionak eta muxu aunitz atabixen partetik.



Sunbillako **Argia Agirre Arretxeak** otsailaren 3an 10 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik. Egun ederra pasa dezazula. Muxuak.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrrak> helbidean sartuta, **TTIPI-TTAPA**REN **bulegoan** edo **postaz** argazkia eta testua Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera bidalita.

Ordaintzeko:

(1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) **(2)** Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu. **(3)** Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia. **(4)** **ERRAN.EUS**en bitartez.



ATERA
TTIPI TXARTELA
eta erabili

pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!




PLAZAN BAZAN




HAMAHIRU!

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak.
13 dira guztira.



ELUR BOLA

Zer sartuko zenuke elur bola batean? Paisaia zuritu bat? Otsoa? Eskiatzaileak? Marraztu.



ARROTZA


Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena.




NEGU GORRIKO SUDOKUAK

Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

NEGU (N, E, G eta U)



GORRI (G, O, RR eta I)



INTERNETEN ERE BAI!
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




Elizagibela
Promociones S.L.

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



- **2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean**
- **Lokal komertzialak**

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL